

2018-11-30 OSTIRALA / 665. ZENBAKIA / 2. AROA
 SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM



1918ko gripeak Sakana jo zuen urtean 502 hildako izan ziren ibarrean, % 123 gehiago / 6-8

Argindarra sortzeko Lizarragako mikro-sareak Nafarroako saria eskuratu zuen ostiralean / 12

Sakanako Nesken Pala Txapelketa hasiko da igandean. Guztira 33 bikote lehiatuko dira / 17

Hasier Larretxearen eta familiaren ikuskizun poetikoa gaur, 19:00etan, lortian / 22



Sakanako Plan Estrategikoa elkarlanaren kultura ereiten ari dela baloratu dute / 5

Hildakoen kopuruen atzean emakumezkoen bizitzak daudela nabarmendu dute azaroaren 25ean / 13

2017-2018ko Sakanako kirolari onenak izendatu ditu Sakanako Mankomunitateak / 18-19

Saats Karasatorre etxarriarrak irabazi du VIII. Mariano Izeta Bertsolaritza Sariketa, Elizondon / 23



EGUBERRITAKO GEHIGARRIA

ABENDUKO GELDIALDIA
 Datorren astean ez da GUAIXErik izango.
 Abenduaren 14ean izanen da hurrengo GUAIXEa.

Ongi izan!





Urdiainen jende asko elkartu zen ostiralean, txapa soinean zutela. UTZITAKOIA

Mihi ariketa kolektiboa

Zortzi egun dira Euskaraldia hasi zela eta makina bat sakandarrek ahobizi edo belarriprest rolean sartuta euskarari arnas berria ematen ari dira. Astelehena bitarteko azken txanpan txaparik ez kentzeko gonbidapena egin dute

SAKANA

Izan da txapa lotarako ere kendu ez duena. Izan da txapa galdu eta bilatzen segitzen duena. Izan da etxetik ateratzean txapa jantzi ez eta haren bila bueltatu dena. Izan da txaparik gabe eguna kezkatuta pasa duena. Izan da bi txapadun gaztelaniaz ikusi eta min pixka bat sentitu duenik. Izan da arropa zintzilikatzen ari zela txapa opatu duenik. Izan da txapak ikusi eta gero izena eman nahi izan duenik. Izan da egunean zehar euskaraz esaldi batzuk esateko

gai izan eta ohera pozik sartu dena. Izan da... eta da Euskaraldiko ikurra, txapa. Hotza egiten duenez, hura agerian eramateko nahikoa lan ematen die hainbati.

Ikur borobil bat, aho edo belarri bat dituenak. Hain gauza txikiak halako konplizitatea sortuko zuenik parte-hartzaile askok ez zuten sinistuko. Izan ere, ezezagunak direnen agurrak jaso dituzte. Orain txapengatik jabetzen dira asko orain arte ondoan izan duen pertsona hori euskalduna dela edo euskara

ulertzen duela. Txapagatik ez bada telefono iruditxoagatik orain arte gaztelaniaz ziren elkarrizketa batzuk euskaraz edo elebidun bihurtu dira. Txapek ariketan parte hartzen ari garenak elkarrekin komunean zerbait dugula erakutsi dute, elkarrekin komunean euskara dugula adierazten digute. Bestetik, Euskaraldiak euskararen inguruan hausnarketa egiteko balio izan dio jende askori.

Gaur zortzi hasi zen Euskaraldia: 11 egun hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala



Irañetan hotzari euskaraz egin zioten aurre. UTZITAKOIA



Euskaraldiaren mustutzearekin mendi irteera egin zuten. UTZITAKOIA



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Arbizun jende asko elkartu zen ostiralean. UTZITAKOIA



Olaztin asteburuan egitarau oparoa izan zuten. UTZITAKOIA



Lizarragan tripoteoa egin zuten frontoian. UTZITAKOIA



Ostiralean, Altsasutik barna ibili ziren Euskaraldiko photocallarekin.

hasi zela. Pasa den ostiralean abiatutako ekimenera ahobizi edo belarriprest rola betetzera batu diren sakandarrak, beraien hizkuntza ohiturak aztertu eta aldatzeko ariketa egiten ari dira.

Ahobizi rola hartu dutenek euskara ulertzen duten guztiei 11 egunetan euskaraz hitz egitea erabaki dute; ezezagunei berriz, lehen hitza euskaraz egiten diete (ulertzen baldin badute, euskaraz jarraitzen dute).

Belarriprest rola hartu dutenek, berriz, euskaraz hitz egiteko gai diren mintzakide guztiei euskaraz hitz egiteko gonbitea egiten diete.

Euskal Herri osoan egiten ari den ariketa honek harrera bikaina izan du, era guztietako erakunde, enpresa eta gizarte eragileek bat egin baitute eta milaka herritarrek hartu baitute, Euskal Herrian egin den ariketa sozial garrantzitsuene-tako batean.

Ariketaren lehen egunetan Euskaraldia izaten ari den eragina handia izan da, kalean ahobizi eta belarriprest txapa duen jende kopurua eta sare sozialetan izaten ari den presentzia aintzat hartuta. Ekimenaren azken txanpan partaideei abiatutako hizkuntza ohitura aldaketei eusteko deia egin diete Euskaraldiaren koordinatzaileek.

Izen ematea gora

Astearte gauerdian itxi zen ariketan izena emateko epea. Euskaraldiaren lehen egunetan

ekimenera batu nahi izan duten herritarren kopurua handia izan da. Jakina denez, bi baldintza daude Euskaraldian izena eman ahal izateko: 16 urte baino gehiago izatea eta euskara ulertzeko gai izatea. Izen-emate epea itxita, 220.000 lagun izan dira euskaraldia.eus webgunearen bidez edo herrietako batzordeek jarritako informazio guneetan izena eman dutenak.

Euskaraldia hasi aurretik azpimarratu zen modura, izena eman dutenen %73ak ahobizi modura jarduteko batu dira ekimenera eta %27a ari da belarriprest modura parte hartzen. Partaideen %36ak 16 eta 35 urte artean du eta %62a emakumezkoa da.

Euskal Herriko 405 herritan osatu dira Euskaraldia antolatze-ko batzordeak eta horietan guztietan eman ahal izan da izena. Hortaz gain, ia 200 enpresa eta entitate sustatzaileek bultzatu dute izen-ematea bere langile eta kideen artean.

Esperientziak

Euskaraldiko parte-hartzaileek euren esperientziak hiru bide-tatik partekatu ditzakete. Batetik, www.euskaraldia.eus/bizipenak webgunean partaideak egunero-egunero ari dira beraien esperientziak bidaltzen. Bestetik, sare sozialen eta interneteko bestelako webguneen bidez, beraien egunerokoa egiten ari diren herritarrek asko direla ere aipa daiteke. Eta,

azkenik, herriz-herri, belarriprest eta ahobizien artean esperientziak trukatu eta bizipenak partekatzeko bilguneak antolatzen ari direla ere azpimarratu behar da.

Azken txanpan

Ariketaren azken egunetarako zenbait ohar zabaldu dituzte Euskaraldiaren sustatzaileek partaideen artean. Duela zortzi egun hasitako ariketari eutsi eta identifikazio ikurrak abenduaren 3rarte soinean eramateko deia egin dute batetik, horrek ariketa egiteko babeska eskainiko baitie ahobizi eta belarriprest guztiei. Bestetik, Euskaraldia esperimentaziorako ekimena ere badela gogora ekarri dute, ekimenaren eragina neurtzeko ikerketa egiten ari dela azpimarratuz eta partaideek hurrengo egunetan jasoko duten bigarren egunetan jasoko duten bigarren galdetegi bete dezatela eskatuz.

Azkenik, egunero-egunero sareen bidez zabaltzen ari diren gomen-dio eta aholkuen bidez beraien buruak prestatzen jarraitzea proposatu diete izena eman duten herritar guztiei, Euskaraldia ahalduzte ariketa bat dela gogora ekarri.

Euskararen Nazioarteko Eguren bezperatan, azken asteburua bertan izanik, herriz-herri topagune eta bilkurak ugaritu egingo dira hurrengo egunetan. Euskaraldia bukatzeko ekitaldiak partaide guztien bilgune izatea espero dute antolatzaileek eta dei egin diete herritar guztiei, Euskaraldian izena eman dutenei eta ez dutenei ere, ekitaldi horietan parte har dezaten.

Herriz-herri eta entitatez-entitate osatu den milaka boluntarioren sare zabala dago Euskaraldiaren azken txanpako antolaketa lanei heltzeko prest.



ARRUAZU

Abenduak 1, larunbata
16:00ean jolasak eta txokolatada. Elkartean.

LAKUNTZA

Abenduak 1, larunbata
21:30ean bertso arafia-musikatua Oscar Estangarekin eta Maialen Arzallusekin. Lakuntzako Pertza elkartean.

Abenduak 3, astelehena
18:30ean Hasiera baten bukaera edo bukaera baten hasiera? ekitaldia. Kultur etxean.

ARBIZU

Abenduak 3, astelehena
19:00etan Euskara, nazioa eta estatua dokumentala eta euskaldun berriekin mahai ingurua. Ondoren, euskaldun berri eta euskara ikasleei omenaldia eginen diete, udaletxean.

ALTSASU

Abenduak 3, astelehena
12:00etan Euskaraldiko eta Euskararen eguneko ekitaldia, Foru plazan (eguraldi txarrarekin kultur gunean).

OLATZAGUTIA

Abenduak 2, igandea
19:00etan Zoaz pake Santuan antzezlena. Kultur etxean.

Abenduak 3, astelehena
19:00etan Euskal-abestien kontzertu txikia txistorrada goxo batez lagunduta. Ondoren, kantu poteoa. Plazan (eguraldi txarrarekin frontoian).



ASTEKOA

XABIER REPARAZ ESTRAMIANA

Azaro Arazo

Keltiar sustraiak borbor egin didate, High Kingsen *Rocky Road to Dublin* entzutean. Txirularen zorabioak, bodhramaren perkusio indartsuan zehar eraman nau hegan mendi gorenetera. Udazkenaren argiak zeharka jotzen ditu harkaitz hezeak. Azaroaren amaierarako lurrean dira hosto gehienak, goroldio hotza eta lokatz lika, hodei potoloen artean datorren argi izpi zorrotzak ihintzaren dir-dir ederra dakar behe lainoan.

Gogoetan, inguruan ikusten den naturaren lozorroaz kutsatu naiz. Galdu dituzte hostoak haritzek, hauen galerak aukera berriak ireki dizkio basoari. Aukera berriak, galera gabe imajina ezinak zirenak. Irlandar kantuen atzean ezkututzen den udazken inspirazioa ikusten dut orain. Arazo guztien gaintetik, azaro ilun guztiak garaitzeko indarra lur jotako entzuleei.

Askotan esan ohi dugu, pareta baten kontra jo beharra dugula gure akatsez oartzeko. *Hartuko dik ostia*. Hortik jaiki eta hartutakoaz ikasi beharra. Zentzua aurkitu eta gure

IRLANDAR KANTUEN ATZEAN EZKUTATZEN DEN UDAZKEN INSPIRAZIOA IKUSTEN DUT ORAIN

jokaera hobetzeko bide bakarra da. Historiak erakusten digu, patuaren eszeptikoei, okerren atzean aukerak daudela. Udazkenen ostean udaberriak datozela. Borrokari ekin baino ez dugula, alemaniar bizardun ezagun batek zioen bezala, ez

ditugu gure kateak baino galduko.

Pilotari saiatuen emaitzetan, euskararen aldeko ekintza berrietan, justiziaren akats larrietan, gizartearen kontsumismo zekenean, ordezkari politiko lotsagarrietan, matxismorik ankerrenean, heriotza bidegabeetan, familia bakoitzean. Hor ditugu aukerak gure burua borrokarako berrabiarazi eta ikasten biziz, bizitzen ikasteko.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXEK** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

Heriotza oharrak

Despeditu berri duzun
hurbileko pertsona
horren bizitzaren iruzkina
argitaratzeko aukera
ematen dizu Guaixek.

Heriotza-oharra argitaratzeko baldintzak

Testuak gehienez 1.900 karaktere izan behar ditu, hutsuneak barne. Bat eta bakarra onartuko da, ez baitira kapituluak onartuko. Idatzi guztiak egilearen izen-abizenekin argitaratuko dira. Testuak euskaraz idatziak bidali behar dira. Heriotzaren eta testu bidalketaren artean gutxienez aste bateko tarte egon behar du. Espazio antolaketa dela-eta GUAIXEK eskubi-dea du jasotako testuaren argitalpena hurrengo astera atzeratzeko. Hala balitz, idatzia bidali duenari jakinaraziko zaio. Heriotza-oharra bidaltzen duenak testuarekin batera honakoak bidali behar ditu: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Idatziak helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilarduia
gk@komunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Miren Alonso Raskin

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Elkarlanaren kultura ereiten ari da SPE

Sakanako Plan Estrategikoaren (SPE) ibilbide erdiko balorazioa egiteko Sakanako Sozio-ekonomia Batzordearen bileran nabarmendu den ideia da elkarlanaren kultura sustatu duela. Balorazio dinamika otsailera artekoa izanen da

SAKANA

Sakanako Sozio-ekonomia Behatokia bildu zen herenegun. Ibarreko hainbat erakundeetako 25 bat ordezkari elkartu ziren. 2014-2020 Sakanako Plan Estrategikoari (SPE) errepaso eta balorazioa egiteko. Egoki joz gero 2020ra bitartean aldaketak proposatuko dira. Horretarako baita Sakanako Garapen Agentziak (SGA) atzo abiatutako prozesua, jardunaldi irekin, ibarreko erakundeekin bilerekin eta parlamentuko taldeekin egindako bilerekin osatuko dena, eta otsailean despidituko dena. Hasteko, herenegun bakoitzak ikusten zuen aldeko eta kontrako puntuak azaldu zituen. SGAko Iker Manterolak bileraren balorazioa egin zuen atzo Beleixe Irratian (FM 107,3).

2014-2020 SPEri nola egin zaio jarraipena orain arte?

2016ra arte Nafarroako Gobernuaren diru ekarpenik gabe egin zen bidea. 2016an SGAko lantaldea Gobernuaren laguntzaz handitu zen eta horrek bultzada handia eman dio SPEren ezarzteari. Bi urte egin ditugu. Beste bi urte geratzen zaizkigu: bi urte hauetan nola hobetu dezakegu egindako lana? Eraginkortasuna? Aurreikusitako aurrekontu guztira ez garelako iritsiko.



Sakanako Mankomunitatearen egoitzan izan zen bileran.

Herenegun zer moduz?

SGAk aurretik memoria bat egin du, zer lortu den, non hobetu beharko genukeen aztertuz diganosia egin genuen. Konturatu gara beste eragile batzuekin, neurri handi batean, diagnostia partekatzen dugula. Aipatzen diren kontsentsuzko lorpenen artean bat da elkarlanaren kultura berri bat sortzen ari gara. Orain arte SPEn egin diren ekintza guztiak egiteko elkarlanaren modua bultzatu da arlo guztietan. Turismo elkartekoek hori goraiatzeko zuten, enpre-

setako berdin, Nafar Lansaretik ere... Eragile eta arlo desberdinetan lan egiteko modu bat egituratu dugu. Hori asko baloratzen zen, lortu diren emaitzen gaitetik. Etorkizunean emaitza gehiago eta hobeak izateko oinarri bat ezartzen duelako. Emaitza zehatzagoak ere badaude, esaterako, proiektu estrategikoetan sortu direnak. Elkarlanean, berrikuntzari eta ikerkuntzari lotutako proiektuak, energia arloan lantzen ari diren eHiera edo Tronbbe adibidez. Eta beste hainbat ere.

Eta zertan hobetu?

Alde batetik, eraginkortasun aldetik, ikusten da SPE finantzatzeko aspektuetan zer hobetu bazegoela. Batez ere urtez urteko eskema batetik jarraipena eta epe luzeko ikuspegia eta lanketa aukerak eskainiko litzukeen finantziario bide batera pasatzea. Orain arte urtean urtekoa egiten da. Askotan ekintzak egiteko diru-laguntzak berandu iristen zaizkigu. Gauzak behar bezain egoki egiteko oso tarte txikiarekin gelditzen gara. Horrela, eraginkortasuna hobetu eta SPEk epe luzeko planteamendua duenez, hori aurrera eramateko epe luzeko baliabideak jartzea. Bestetik, inbertsioak bideratzeko finantziario eskema baten beharra. Bildutakoek orain arteko bidea egokia zela esan zuten, baina non sakondu? Eragileen arteko elkarlanean sakontzea; Utzugane Sakanako garapen gune gisa indartzen atean bertan dauden Sakanako Enpresari Elkarte, Cederna-Garalur eta SGAREN arteko elkarlan eskeman sakontzea. Dagoeneko hainbat akordio ditugu. Bestetik, proiektu estrategikoekin eta ikerketa, garapena eta berrikuntzarekin jarraitzea, enpresekin elkarlanean.

Eta aurreikusi ez zenuenik bada?

2014an aurreikusten ez ziren hainbat aspektu landu beharra agertu da, bai. Kontsentsuzkoetako bat da eraldaketa digitalarekin etortzen zaigun iraultzari nola aurre egin. Denen adostasuna zen, modu batera edo bestera, sektore guztietan eraginen duela. Joan den urtean lantzen hasi ginen eta aurten segitu dugu horretan. Eraldaketa digitalari lotutako estrategia duen Nafarroako eskualde bakarra gara eta horren balioa aitortu

zen. Nafarroako Gobernua zehazten ari da estrategia hori eta guk, behintzat, oinarriak ditugu. Nafarroako 30 enpresetan zein egoera duten eta zer lan egin beharko litzuketen, diagnostia egiten ari dira. Bada, 10 Sakanako dira. Adierazle argia da. Merkataritzaren arloa egin dugun ikerketan landu den aspektuetako bat da. Helburu horrekin Irurtzunen Sakanaren eraldaketa digitalerako gune bat prestatzen ari gara.

Orain zer?

Hau denon arteko gauza bat izanik, ideiak eta aukerak ugariak izan daitezke Sakanan. Horiak plazaratzea eta mahai gainean jartzea beti interesgarria izanen da bertan gauden eragile guztiendako. Horregatik, irakurleak gonbidatu nahi ditut abenduan egiten diren jardunaldi irekietara. Irurtzunen (13an), Etxarri Aranatzun (18an) eta Altsasun (11n) egiten dira. Orain arte lortutako emaitzen gizarteratzea egiten dugu. Zer lortu den eta horren balorazioa egitea eta herritarren gai honen inguruko ideiak eta ekarpenak jasotzea. Edo eskualdean identifikatu diren behar berriak. Hori batera edo bestera erantzuna emateko. Etorkizuneko Sakana sortzeko denon parte-hartzea beharrezkoa da. Elkarlan esparru honetan gure lanetako bat da iristen diren ekarpen guztiak batera edo bestera bideratzea. Herrian dauden gauzak, kokatzea eta hainbat lanketan txertatzea.

"KANPO ZERBITZUETARAKO 2014-2020 ALDIRAKO AURREIKUSITAKOAREN % 38A JASO DUGU"



107.3 FM
beleixe
guaixe.eus-en ON LINE
Denboraldi berria

Saioa 10:00 – 12:00

10:00 Egun on, prentsa eta eguraldia

10:15 Eguneko agenda

10:20 Albistegia

10:45 Eguneko elkarrizketak

11:15 Sarea: Esan Erran eta Aralar irratiko esatariekin

11:55 Saioaren bukaera



Gripearen urtean Etxarri Aranatzek biztanleriaren % 7,9 galdu zuten. UTZITAKOA

1918ko gripea eta dolu egunak

Gripe pandemia izan zen eta horrek arrasto tristea utzi zuen Sakanan. Gaitzak ibarra 1918ko irailaren 14a eta lastailaren 31 artean kolpatu zuen gogorren. Medikuek, apaizek eta ehorzleek lan handia izan zuten, 7 astetan 263 sakandar hil ziren

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Gripearen birusak genetikoki aldatzeko gaitasuna du, horregatik, urtetik urtera aldaketak izaten dira. Gaixotasunei erresistentzia egiteko pertsonen sistemak aurreko urteetako birusak “oroitzen” ditu eta horrela gure gorputzak erantzun azkarra ematen du. Hala ere, aldi behin birusaren aldaketa handiago bat izaten da eta “oroitzapenak” balio gabetzearan, gaixotasunaren eragina handiago da. Hala gertatu zen, esaterako, 1918an. Iturri batzuen arabera gripeak munduan 40 eta 50 milioi hildako artean utzi zituen. Batez ere 20 eta 40 urte arteko emakumezkoak eta gizonzkoak hil ziren gripeak jota.

1918ko maiatza aldera gripe “olatu” bat izan zen. Baina Sakanak harrapatu zuena udazkenekoa izan zen. Irailaren 10ean

hainbat egunkarietan Goizuetan gaitzak jota 200 pertsona baino gehiago zeudela jakinarazi zuten. Hortik aurrera “grippe”-aren berri egunero emanen zuten egunkariak. Irailaren 17an Luis Mendez Queipo de Llano gobernu ordezkariak alkateei agindu zien “premiak” tokiko osasun batzordeak bildu eta euren herrietan gripearen eragina zein zen jakinarazi ziezaiotela. Nafarroako osasun egoerak okerrera egin zuen eta Mendezek “gripea epidemia moduan presente” zegoela adierazi zuen ofizialki. Horrekin batera, Na-

**AZOKAK IXTEAK
PREZIOEN IGOERA
ERAGIN ZUEN, BAITA
KASU BATZUETAN
HORNIDURA FALTA**

farroako Osasun Inspektorearen estarbiak eta etxeak desinfektatzeko eta pertsonen higiene metodoen berri eman zuen prentsak irailaren 21ean.

Jende pilaketan kontra

Nafarroako Aldizkari Ofizialak irailaren 27n jakinarazi zuen gripeak kutsatutako herrietan ezin zela festarik, ikuskizunik edo bilerarik egin. Horrela, jende pilaketak eragotzi eta gaixotasuna errazago zabaltzea saihestu nahi zuten agintariak. Etxarrengo, Zuhatzuko, Etxarri Aranazko eta Altsasuko festak eta feriak bertan behera gelditzen zirela jakinarazten zuten iragarkiak argitaratu zituzten udalek prentsan. Arrazoi beragatik feriak eta azokak ere debekatu zituzten.

Bi egunetara Irurtzungo alkate Manuel Beramendik jakina-

razi zuen gobernadorearen aginduz 15ero egiten ziren azokak mugagabe bertan behera gelditzen zirela, lastailaren lekotik hasita. Azokarik ez izateak ekarri zuen haietan erosketak egiten zituzten pertsonen hornidura arazoak izatea. Gainera, abeltzainek azienda saldu nahian zebiltzan. Abereek jaten zuten laboreen prezioa igo egin zen eta euren etxeetan aparteko gastua bihurtu zen. Hala zioen Irurtzungo Diario de Navarrako berriemaileak lastailaren 11n. Hilabete horretako 28an Irurtzungo komisio bat gobernu ordezkariarekin bildu zen, azokak zabaltzea eskatzeko. Osasun Inspektzioko txosten batean oinarrituta, ezezkoa eman zien.

“Ikusten ez bada ezin da sinetsi zenbat jende etorri zen atzo azokara”. Horrela hasi zuen berriemaileak abenduaren 5eko kronika. “Irurtzundarrek bezala kanpotarrek ere, guztiek azokak berriro egiteko irrikitan zeuden. Horrek erakusten du guztiei komeni zaiela bertan behera ez gelditzea, nahiz eta badiren ezer irabazten ez dela esaten duenik”.

Lastaila hasieran panorama ez zela hobetzen ikusita, egunkarietan medikuek agindutako neurriak betetzearen garrantzia azpimarratu zuten. Gripeak jokatuko pertsonen jaten zuten elikagai bakarretakoa esnea zen. Gaixo asko zegoenez esne eskaerak gora egin zuen eta horrekin prezioak.

Gainera, klaseak ere bertan behera gelditu ziren. Azaroaren 5eko Diario de Navarran irakur zitekeenez, udalek eskolak zabaltzeko aukera zuten, beti ere, herrietan gaixo berririk eta heriotzarik ez balego. Osasun Batzordeek baimenduta eskolara buelta azaroaren azken aurreko astean izan zen.

Herrietako berri

Gripeak ez zuen desberdintasunik egiten eta medikuak ere gaixotu ziren. Lastailaren 9an **Irurtzungo** Diario de Navarrako berriemaileak jakinarazi zuen Jose Jaen medikua gaixo zego-

**ESKOLAK ITXI ZIREN.
AZAROAREN 1EAN ETA
2AN HILERRIETARA
JOATEA DEBEKATU
ZUTEN**

la eta hobetzen ari zela. Carmelo Irurita irurtzundarra Bilbon medikua zen eta herrira 15 eguneko oporraldiaz gozatzera joana zen. Baina Irurtzungo medikua gaixo zegoenez, Iruritak bere gain hartu zuen gaixoak artatzea. Berriemaileak ziurtatu zuenez, Irurtzungoak zenbait kasu “onbera” ziren. Egunkari bereko lastailaren 11ko zenbakian jakinarazten zen Jaen medikua sendatuta zegoela eta gaixoak bisitatzen hasia berriz. Errepikatzen zuten Irurtzunen eta inguruko herrietan gripe kasu “onberak” zirela.

Irurtzunen 40 gaixo zeudela jakinarazi zuen berriemaileak lastailaren 18an. Hiriberriko medikua gaixo zegoenez, Irurtzungoak, Jose Jaenek 17 herriren ardura zuela jakinarazi zuen. Berriemaileak jakinarazi zuen bezperan Aralarko aingeruaren “irudi mirarigilea” Arakilgo herrietan barna ibili zela, hainbat fededunegaz lagunduta. Haiek “fede biziz, epidemia izugarriarekin bukatzeko santuaren bitartekaritza eskatzen zuten”. Lastailaren 25eko kronikan jakinarazi zuenez, “gaixo kopuruak behera egiten segitzen du eta 20 dira, onberak denak, epidemia hasi zenetik bezala. Orain arte hildako bakarra izan da”.

Lastailaren 30eko kronikan jakinarazi zuen gaixotasunak behera egiten segitzen zuela, baina Juan Larunbe 17 urteko gaztearen heriotzaren berri eman zuen. Gaineratu zuenez, usopasa handia zegoen eta ehiztariak asko ehizatu zuten, baina usoen prezioak garesti zeudela gaineratu zuen. Eta gaztigatu zuen hegaztiak aurreko urteetan baino aurkari gutxiago zituztela.

Azaroaren 8an gripea Irurtzunen desagertutaz jo zitekeela azaldu zuen berriemaileak, “kasu berririk ez baita eta gaixo zeudenak aurrera egiten ari dira”. San Martin festak bertan ziren baina berriemaileak zioenez, “ondoko herrietan bezala, hemen ere jendearen artean ez da txantxarako gogorik gelditu eta aurtan ez da 11rako festa prestataririk sumatzen”. Aldi berean, jakinarazi zuen hezetasun handia eta euria gogoz egiten ari zela eta, ondorioz, ereintza bertan bera gelditu zela.

Azaroaren 27an berriemaileak gripe epidemia bukatutzat eman zitekeela idatzi zuen, gaineratuz, “hari aurre egiten hainbeste lan



Gripea zela eta bi hilabetez bertan behera gelditu zen Irurtzongo azoka. UTZITAKOA

egin duen Jose Jaen gure medikuari atsedean hartzea tokatzen zaio, premia zuen eta. Gaur gaitzak iraun duen bitartean hildakoen aldeko hileta-elizkizunak hasi dira”.

Gripeak medikuarengan arrastoa utziko zuen, kargua utzi baitzuen. Berria kontratatzeke deialdia abenduaren 6an sinatu zuen Manuel Beramendi alkateak eta Diario de Navarran 16an argitaratu zen. Medikuntza eta kirurgian doktoreak eta lizentziatuak izatea eskatzen zuten. Urteko 3.250 pezetako soldata zegozkion herrietako familiak artatzeagatik, hiru hileroko pagatuko zutena. Eta, mediku titularra izateagatik beste 500 pezeta. Kargua hartzen zuenak Aizkorbe, Urritzola, Errotz, Izurdiaga, Irurtzun, Etxeberri, Gulina, Aginaga eta Ziako mediku izanzen zen.

Abenduaren 10ean berriemaileak Patricio Zeliguetaren, **Izurdiagako** apaizaren alde egin zuen, “gizateriaren onerako sakrifizio handiak egin zituen apaiz eskuzabalak”. Haren lana berandu goraiatzeko zuela aitortu zuen, baina hala esamesei aurre egin nahi zien. “Jakin dudanez esker txarreko batzuk zalantzan jarri dute apaizaren sentimendu onak eta karitate garbia. Esaten dute aitzakiak emanez eta gaitzaz kutsatzeko beldurrez deitzen zuten tokietara joatera ukatzen zela. Apaiz batez halako zentzugabekeriak esateko gaiztoa izan behar da.

Are gutxiago karitatea gehien ahal duenak bezala praktikatzen duenean eta bere ministerio delikatua arduraz eta inolako akatsez betetzen baitu”.

Lakuntzako egunkari horretako berriemaileak lastailaren 29an jakinarazi zuenez, “zorionez, herri honetan gripearen intentsitatea jaisten ari da eta gaixo berriak eskasak dira. Hala ere, lau heldu eta 5 haur hil dira”. Azaroaren 13an berriemaileak jakinarazi zuen “grippe gorrotagarria nabarmen txikitzen ari da. Oraindik 20-30 gaixo daude, baina gutxi dira egon direnekin alderatuta, eta ez dut haiek larri daudenaren berririk. Gaitz horregatik izan diren heriotzei 12 eta 21 urteko bi gizonetako gazteren heriotzak gehitu behar zaizkie. Gainontzeko herritarren artean berririk ez, patxada eta lasaitasuna bueltatzen ari dira”. Berriemaileak jakinarazi zuenez, artoaren uzta zertxobait atzeratu zegoen, “baina benetan atzeratuta dagoena laboreen ereitea da. Guztia denboraleagatik, sorotan lan egiten uzten ez delako. Erein den pixka baldintza txarretan egin da, gehiegizko hezetasunarekin”.

Lastailaren 10ean **Arbizuko** eta Etxarriko egoeraren berri zegoen Diario de Navarran. “Gripe madarikatu honek, Jainkoak nahas dezala, gerra-gogoz etorri da hona ere. Egun gutxitan bi biktima izan dira; larriak ugari eta epidemiak jota herriaren % 99 dago”.

Etxarri Aranazkoak jakinarazi zuen aurreko bi egunetan euri asko eta hotz handia egiten zuela, “eta, horregatik, gaixoen egoera okertu egin da. Oinaze handien kexu dira eta zazpi hil dira. Denboraleak segituz gero ziurrenik hildako eta gaixo gehiago izanen dira”. Berriemaileak jakinarazi zuenez, zaila zen erizainak opatzea, horregatik udal ordezkari bat Altsasuko kaputxinoen komentura joatekoa zen, fraideren batzuk herrira joan zitezela eskatzeko.

Berriemaile etxarriarrak bere kronikan gaineratu zuenez, “herri honetako etxebizitzien higieña orokorrean eskasa da, eta haietan bizi diren jende kopuruarendako espazio gutxi dago. Horregatik, aldameneko herrietan baino gaixotasun kasu gehiago daude”. Berriemaileak jakinarazi zuenez, Etxarriko lau

apezetatik bi gaixo zeuden eta adinekoa zen parrokoak “ikaragarriko lana” du. Azaroaren 2an aurreko hilabetearen laburpen tristea egin zuen berriemaileak: “grippe ospetsuak 104 bat hildako eragin ditu orain arte. Oraindik zenbait gaixo larri daude. Atzo Aralarko aingerua ekarri zuten, meza nagusia izan zen eta arratsaldean aingeruarekin prozesioa, Jainkoari gaixotasun kaltegarri hau desagertzen joan dadila erregutzeko. Ziurrenik herri hau Nafarroako zigortuenetako bat izan dela”.

Gripearen errepaso latza izan zen. Udalak hildakoak oroitzeko hileta-elizkizunak antolatu zituen abenduaren 23rako. Haren berri emateko etxe guztietan oroigarri elebiduna banatu zuen, **Oroimeñez** izena zuena.

Lastailaren 12ko Diario de Navarran **Altsasuko** berriemai-

leak jakinarazi zuen 120 gaixo zeudela eta kopuruak behera egiten zuela zirudiela. Gripeak bi hildako utzi zituen ordurako. Lastailaren 26ko kronikan jakinarazi zuen mila altsasuar gripeak jota zeudela eta 24ra arte 19 hildako izan zirela. Osasun Batzordeak eta Altsasuko Udalak osasun publikoaren alde egindako lana goraiatu zuen. Gaixoei jatekoa ziurtatzeko Altsasuko Udalak jakiz hornitzen zituen herritarrek: “103 arrautza dozena 20 zentimotan saldu ditu, nahiz eta 25ean erosi. Gaixoei ere esnea ematen die, gastuei eta trabei erreparatu gabe”. Berriemaileak azaldu zuenez, gaixoen artean banatzeko helburuz, Altsasuko Udalak Gipuzkoan egunero 50 litro esne erosten zituen, “Donostiako gobernadore jaunak debekatu arte. Ondorioz, udaleko ordezkariak Gerrikara joan behar izan zuen han kondentsatutako esnea lortzeko eta dauden beharrei aurre egiteko. Litroa 50 zentimotan saltzen da, esne freskoa saltzen zen prezio berean”. Berriemailearen iritziz “epidemia txikitzen” ari zen.

Azaroaren 8an egunkariko berriemaileak jakinarazi zuen gaixo berririk ez zegoela eta “pairatu zuten ia denak osatzen ari dira. Irailaren 21etik gaur egunera arte 1.095 gaixo eta 32 heriotza izan dira, azken heriotzatik 28 gaitza honegatik”. Hilaren 21ean argitaratu zuenez, Osasun Batzordeak gripe epidemia ofizialki bukatutzat jo zuen. “Gripearen desagertzea, Europako gerraren akaberarekin bat egin duenak, herriak meza nagusi batekin ospatu du, elizkizunean udala eta musika-banda izan ziren. Bukaeran prozesioa izan zen”. **Segi 8. orrian**

Aholkularitza
Juridiko
laborala

Aitziber
Andueza Larraza
Abokatu / Gizarte Graduatua

aitziberlarraza.aholk@gmail.com
Arkuetabide 2 baxua
ETXARRI ARANATZ

653 863 289
848 412 926

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.

948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

**Auto berri eta
bigarren eskukoak
SALMENTA**

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea**

TXARTEL
TX
20 urteurrena

www.txartel.net
948 564 002
txartel@txartel.net

1918ko gripeak hildakoak eta aurreko eta ondorengo urteekin alderaketa

Udalerrria	Urtea / Hildako kopurua		
	1917	1918	1919
Arakil*	32	66	43
Irañeta	7	11	7
Uharte Arakil	23	22	19
Arruazu	3	4	10
Lakuntza	12	28	17
Arbizu	20	20	19
Ergoiena	10	43	36
Etxarri Aranatz	38	123	23
Bakaiku	6	10	12
Iturmendi	4	6	8
Urdiain	9	23	11
Altsasu	37	88	49
Olatzagutia	18	49	21
Ziordia	6	9	7
Sakana	225	502	282

OHARRA: *ARAKILEN BARRUAN ZEGOEN IRURTZUN.
ITURRIA: UDALAK ETA ETXARRI ARANAZKO ETA ALTSASUKO BAKE EPAITEGIAK

1918ko gripeak Sakanan hildakoak

Udalerrria	Irailaren 13ra arte	Irailaren 14tik azaroaren 1era	Urte akabera arte	Guztira
Arakil*	32	24	10	66
Irañeta	4	6	1	11
Uharte A.	14	7	1	22
Arruazu	3	1	0	4
Lakuntza	9	14	5	28
Arbizu	13	6	1	20
Ergoiena	14	18	11	43
Etxarri A.	18	93	12	123
Bakaiku	7	1	2	10
Iturmendi	3	1	2	6
Urdiain	8	12	3	23
Altsasu	41	40	7	88
Olazti	10	36	3	49
Ziordia	4	4	1	9
Sakana	180	263	59	502

OHARRA: *ARAKILEN BARRUAN ZEGOEN IRURTZUN.
ITURRIA: UDALAK ETA ETXARRI ARANAZKO ETA ALTSASUKO BAKE EPAITEGIAK

Sakanako populazioaren % 3,49 hil zen 1918an, 502 pertsona

1917arekin alderatuz 277 hildako gehiago izan ziren 1918an, % 123,11ko hildako gehiago izan ziren.

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Gripeak 1918ko udazkenean jo zuen ibarrean. 1918ko hildakoen %35,86a irailaren 13ra arte izan ziren. Aurreneko 256 egun horietan ibarrean 180 sakandar hil ziren. Hurrengo 48 egunetan, irailaren 14tik lastailaren 31ra, 263 hildako izan ziren, 1918ko zendutako guztien % 52,39. Urte arteko azken bi hilabeteetan 59 sakandar hil ziren, 1918an zendutakoen % 11,75.

1918ko gripeak ibarreko herrietan ez zuen arrasto bera utzi. Esaterako, Uharten edo Arbizun hildakoen kopurua ez zen hazi.

Beste muturrean daude Ergoiena (33 hildako eta % 330 gehiago), Etxarri (85 eta %223,68), Olatzagutia (31 eta % 172,22), Urdiain (14 eta % 155,56), Altsasu (51 eta % 137), Lakuntza (16 eta % 133,33) eta Arakil (34 eta % 106,25). Heriotza ehunekoa txikiagoa izan zen gainontzeko herrietan: Bakaiku (4 hildako gehiago eta % 66,67 gehiago), Irañeta (4 eta % 57,14), Iturmendi (2 eta % 50), Ziordia (3 eta % 50) eta Arruazu (1 eta % 33,33).

Erroldari erreparatuta ere gripearen urteak arrasto desberdina utzi zuen herrietan.



Etxarriko Udalak banatu zuena.

1920ko biztanleria erreferentzia hartuta, alde handiz, arrasto handiena Etxarrin utzi zuen bere populazioaren % 7,9 eraman baitzuen kanpo santura. Lakuntzak biztanleriaren % 3,78 galdu zuen, Olatzagutiak % 3,6, Ergoienak % 3,52, Altsasuk % 3,41, Urdiainek % 3,13. Gainerako herrietan heriotzak % 3tik behera eragin zuen: Irañeta % 2,92, Arakil % 2,8, Uharte % 2,68, Bakaiku % 2,36 eta Arbizu % 2,21. Hiru herri galdu zuten % 2 baino gutxiago: Ziordia % 1,69, Iturmendi % 1,36 eta Arruazu % 1,26. +www.guaxe.eus

1918ko gripearen eragina biztanlerian

Udalerrria	1920ko biztanleria	1918an gripeak hildakoak	%
Arakil*	2.355	66	2,80
Irañeta	377	11	2,92
Uharte Arakil	821	22	2,68
Arruazu	317	4	1,26
Lakuntza	741	28	3,78
Arbizu	903	20	2,21
Ergoiena	1.223	43	3,52
Etxarri Aranatz	1.557	123	7,90
Bakaiku	424	10	2,36
Iturmendi	441	6	1,36
Urdiain	734	23	3,13
Altsasu	2.578	88	3,41
Olatzagutia	1.363	49	3,60
Ziordia	531	9	1,69
Sakana	14.365	502	3,49

OHARRA: *ARAKILEN BARRUAN ZEGOEN IRURTZUN.
ITURRIA: UDALAK ETA ETXARRI ARANAZKO ETA ALTSASUKO BAKE EPAITEGIAK

Gripearri aurre egiteko produktuen iragarki ugari txertatu ziren

Gripearren kontrako mota guztietako erremedioak iragarri ziren El Pensamiento Navarro eta Diario de Navarra egunkarietan. Iragarri haietako batek esaten zuen gripearren kontrako botika onena koñak on bat zela. Zotal etxeak bere desinfektatzailea eta xaboia iragarri zituen.

Bazen kotoi bat sudur zuloetan sartu eta "desinfektatzailea sor-

tzen du, germenak hil eta gaixotasuna saihesten" zuena. Pinedo Ardoa "indargarri energetikoa, bihotz-tonikoa" zen. Heroina goxoki baltsamikoak farmazietan eros zitezkeen. "Modako gaixotasunaren inbasioaz libratzeko Martin txokolatea hartu behar da, gutxienez egunean bitan. Goren mailako medikuek gomendatuta". Bete-luko bainu-etxea, Foret ur-oxigenatua neutroa "ahoaren txertoa" zena, barruko jantziak eta hainbat gehiago. +guaxe.eus



Altsasuko osasun etxea. ARTXIBOA

366 biriketako gaixotasun buxatzaile kroniko gurean

Gobernuak diagnosiaren eta esku-hartze goiztiarraren garrantzia nabarmendu ditu

SAKANA

Azaroaren 21ean izan zen biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoaren mundu eguna. Osasunbideak jakinarazi zuenez, 11.000 nafarrek dute gaixotasun hori. Haien % 3,32 sakandarrak dira, 366. Irurtzungo osasun eskualdean 118 daude (ibarrekoen % 32,24), Etxarrikoan 59 (% 16,12) eta Altsasukoan 189 (% 51,63).

Gaitz horren diagnosis osasun etxeetan egiten da espirometriaren bidez. Arriskuzko faktoreak dituzten pertsona helduek pasatzen dute proba hori, besteak beste, eztl kronikoa duten erretzaileak. Pertsona horiendako terapia neurri eraginkorra erretzeari uztea da. Horretarako haiekin, bakarka edo taldeka lan egiten da. Gaitzaren garapen arin edo moderatua duten pertsonak osasun etxeetan artatzen dituzte. Konplexutasun handiagoko kasuei, 4.500 bat, gaitza Gaixo Kroniko eta Patologia anitzekoaren programaren bidez egiten diete jarraipena.

Gaixoen adina 70 urtekoa da, % 70 gizonezkoenak eta % 30 emakumezkoenak. Gaixoen % 25ek patologia anitz dituzte. 45 urtetik gorakoan artean gaitza % 4an agertzen da, baina uste dute diagnosi egokia egitea falta dela, % 10 izan litekeela.



Altsasun 117.000 kilo materia organiko bereizita jaso dira aurten.

Materia organikorako bosgarren edukiontzia bidea egiten, motel

Etxeko materia organikoa kudeatu nahi dutenek 900 730 450 doako telefonora hots egin dezakete

ALTSASU

Sakanako Mankomunitatearen eta Altsasuko Udalaren hitzarmenari segituz, Mank-ek 140 bat edukiontzi marroi jarri zituen Altsasun eta ilbeltzaren 18an hasi zen haietan zegoena jasotzen. Mank-en Hondakin Zerbitzutik jakinarazi digutenez, gaur egun Altsasuko 652 etxebizitza daude 5. edukiontzian izena emanda. Altsasun dauden 3.790 etxebizitzaren % 17,2 da hori. Materia organikoa euren etxean konpostatzen duten 129 etxe daude Altsasun. Bi auzo-konpostagailu daude herrian eta haien erabiltaileak 38 dira. Zerbitzutik argitu dutenez, zenbait erabiltailek utzi egin dute 5. edukiontzia alde egin dutelako.

Modu batera edo bestera materia organikoa egoki banatzen duten Altsasuko etxebizitzaren kopurua 819 da, % 21,6. "Banatutako materia organikoa oso

kalitate onekoa da, egin diren karakterizazioetan %99ko eta %100eko purutasunaren artean eman izan du" esan digu Beñat Agirre Bengoetxea teknikariak.

Hitzarmenaren arabera Altsasun hondakinaren gaikako bilketa % 65koa izatea nahi dute urte akaberarako. Gaur egun kopurua % 36,5ekoa da, 2016an baino ia % 10 gehiago. Baina Sakanako joan den urteko % 55,99aren azpitik (atez ateko herrietan % 78,11, eredu mistokoetan % 63,75 eta Irurtzunen % 39,68).

Hori lortzeko ezinbestekoa etxetako materia organikoa egoki bereiztea da, sortzen diren hondakin guztien % 40 baita. Hondakinak behar bezala bereizteak berebiziko garrantzia du. Ezarritako helburua lortzeko Altsasuko etxebizitzaren % 60k eman beharko lukete izena eta, esan bezala, momentuz % 21,6 besterik ez du pauso hori egin.

Irurtzungo Udal guztia telefono mugikorrean

Irurtzungo Udalak telefono mugikorrendako aplikazioa mustu berri du. Aitor Larraza Carrera alkateak azaldu duenez, "irurtzungo udalarekin duten parte hartzea erraztu eta hobetzeko garatu dugu aplikazio hori". Norberak bere telefonotik Google Playn edo App Store platafometatik deskargatu dezake Irurtzungo Udalaren aplikazioa.

Larrazak esan duenez, "aplikazioak udalarekin komunikazio esparru zuzen bat irekiko du". Adibidea ere eman du: "bakarren batek bere auzoan zerbait hobetu daitekeela ikusten badu edo proposamen bat badu, tresna horrekin, udalari era errazean jakinaraziko dio informazioa". Aldi berean, aplikazioak "udalerriko hainbat informazio jasotzeko balio du: intereseko telefonoak, turismo ibilbideak, kultur ekintzak eta abar".

Mank-ek 113.340 kilo konpost banatu ditu

Azaroa bitarte 757 etxeetatik joan dira Arbizuko hondakindegira konpost bila. Nafarroako Unibertsitate Publikoak egindako ikerketak Sakanako konpostaren kalitatea berretsi du

SAKANA

Sakanako Mankomunitateak Arbizun duen hondakindegitik pasatzen denak konposta etxera eramateko aukera du. Astegunetan 08:00etatik 15:00etara joan behar da horretarako, bulegotik pasa eta jakinarazpena egin ondoren 250 kilo arte eramateko aukera dago. Baratzeko lurra-ekin nahastu eta haren kalitatea hobetzeko edo ongari bezala erabil daiteke konposta. Aurten dagoeneko 757 etxeek erabili dute aukera hori eta Mank-ek 113.340 kilo konpost banatu ditu azarora artean.

Mank-ek sortzen duen konpostari kalitate kontrolak pasarazten dizkio urtero, eta hala, haren kalitate ona ziurtatzen dute. Horiei aurten Nafarroa Unibertsitate Publikoak (NUP) egindako azterketa gehitu zaie. Eta emaitza berretsi egin du Ignacio Irigoien Iriarte agronomia, bioteknologia eta elikadura arloko landare-ekoizpeneko irakasle-ikertzaileak. Zehazki, Mank-en konpostaren kalitate eta ezagarrak aztertu eta baloratu ditu.

NUPen letxuga eta brokoliekin entseguak egin dituzte. Emaitza: "frogatu dugu bi labore horietan gero eta konpost gehiago gehituta, landareak orduan eta hobe hazten direla. Loreontziak bakar-bakarrak konpostez beteta zirenean emaitzarik hobereak lortu dira". Irigoienek zehaztu duenez, "ikerketaren emaitzen arabera, dudarik gabe esan dezakegu Sakanako konposta guztiz ona dela eta arazorik gabe erabili daitekeela nekazaritzan. Horregatik, erabiltzera animatu nahi zaituztegu. Hala ere, hazitegietan lurrarekin nahastea gomendatzen dugu, ongari hau gogorregia baita jaioberriak diren landaretxoendako".

Sakana eredu

Irigoienek gogorarazi du lurreko baliabideak mugatuak dire-



Letxugak Sakanako konpostaren % 100, 75, 50, 25rekin eta gabe. NUP

KILO GEHIEN ETXARRI, IRURTZUN, OLAZTI, ARBIZU ETA ALTSASUARREK ERAMAN DITUZTE

la eta, horregatik, Europako Batasunak zirkulu-ekonomia bulkatzeko zuzentaraua onartu duela. "Alde batetik gailuak eta haien osagaiak inorganikoen bitzita luzatu behar da, erabilerak konpartitua eginez, apurten direnean berrerabiltzeko konponduz eta, azkenik, konponezina direnean bere materialak birziklatzeko bereiziz. Gai organikoari dagokionez, behin elikagai eta beste gai organikoak kontsumitu ondoren, lurrera bueltatu behar dugu ongari bezala ahalik eta modu txukunenean".

Irigoienek iritzi, "Mank Nafarroan aitzindaria izan da zirkulu-ekonomiaren garapenean. Azken urtetan egin duen lan itzelari esker, gaur egun, hondakinaren kudeaketari dagokionez Nafarroako emaitzarik onenak lortzen ditu. Sakanan sortzen

diren etxeko hondakinaren % 54 berreskuratzen dira gainontzeko % 46a zabortegian bukatzen du". Ibarrek gaur egun Europak 2025erako eskatzen duen materialen berreskurapen maila lortu duela gaineratu du Irigoienek. "Arrakasta horren gako nagusia Sakanako sukalde eta lorategi gehienetan egiten den elikagaien eta landare hondakinaren bereizketa da. Bio-hondakina, bereiz kudeatzen denean, ongarrion erraz bilakatzen da konposta izeneko prozesuaren bidez".

BIL TOKI
TABERNA • JATETXEA

**Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta**

Astehenetik ostiralera
**Eguneko menua
10€**

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 · Altsasu



Joan den urteko gida. ARTXIBOA

Aurki etxean zerbitzuen eta establezimenduen gida

Hurrengo egunotan Sakanako Gida 8.500 etxebizitzetan banatzen hasiko dira. Sarean: www.guaixe.eus/gida

SAKANA

Ordenagailua ez doala. Nori deitu? Etxean matxura izan duzula. Nori hots egin? Dendakoa-ri deitu nahi diozula. Zein da bere telefonoa edo helbidea? Informazio hori guztia Sakanako Gidan topatuko duzu. Egunerokoan bertako informazio baliagarria eta praktikoa ematea, hori da Sakanako Gidaren helburua.

Guaixe fundazioaren argitalpena da Sakanako Gida, ibarreko dendan, zerbitzuen, enpresen eta autonomoen informazio osatua eta eguneratua duena. Gida berak Sakanan dugun eskaintza zabalaren eta ugariaren berri ematen du ere. Bertako ekonomiaren oinarri zabala osatzen dute Sakanako Gidan agertzen diren zerbitzu eta establezimenduak. Haiek bizi diren heinean gure herriek bizia izanen dute.

Paperean eta online

Sakanako Gida etxera iritsiko zaigu hurrengo egunetan, etxeko banaketa aurki hasiko baita. Helburua bi aste epean sakandar ororen etxeetan egotea da. Baina uneoro eskuragarri dago Interneten, www.guaixe.eus/gida helbidean. Paperekoan dauden establezimendu guztiak interneteko gidan online eskuragarri daude ere. Bilaketa errazteko, gida sailka eta azpisailka antolatuta dago. Interneten, gainera, establezimendu bakoitzak bere orria du eta han helbidea, telefonoa, e-posta eta haren web orriaren berri dago. Mapa batean haren kokapena ematen da ere.

Harremanetarako

Sakanako Gidaren hurrengo edizioan edo orain Interneteko bertsioan sartu nahi dutenek 948 564 275ra hots egin dezakete.

Hiru bikaintasun sari Sakanara etorri ziren astelehenean

Bikaintasunaren Nafarroako Saria enpresen lehiakortasunaren hobetzea sustatu nahi da, bereziki enpresa txiki eta ertainena, haien merkatu-kokapena eta emaitza. Horretarako kudeaketa tresna egokia dela uste dute sariketa antolatzen duten erakundeek. Horretarako, saria eskuratzeko hautagai diren enpresen eta erakundeen ku-

deaketa eredia EFQM eta Kudeaketa Garatua eredu bidez aztertzen dute. Diagnostika egin zitzaizen lehenik eta, ondoren, kanpo azterketako hiru pausoak pasa behar izan zituzten.

Sarituak izan zirenen artean daude Izurdiagako Saprem (Bikaintasunerantz konpromisoa) eta Altsasuko Sunsundegui (Brontzeko Kudeaketa Aurreratua) enpresak eta bular minbiziari aurre egiten dion Saray elkarte M^a J Oraa olaztiarra (Hiritar Bikaintasun Saria).



Aurreko urteko bilketa. ARTXIBOA

Jatekoen bilketa handia gaur eta bihar egingen da

Jasotako elikagaiak, hilero, premia duten 29.000 nafarren artean banatzen da

SAKANA

Nafarroako Elikagaien Bankuak jakien bilketa handia egingen du gaur eta bihar. Sakanako makina bat herritan, ohiko tokiak, berritoki zabalduko dira eta haie-tan boluntarioek eramaten ditzaketen jatekoak bildu eta sailkatuko dituzte. Herri handi-agoetan denda batzuetan egoten dira bilketa egiten. Altsasun, esaterako, Eroskiren bi establezimenduetan, BMn eta DIAn egonen dira boluntarioak jaki horiek jasotzen. Beharra dute-nendako oinarritzko elikagaiak jaso nahi ditu Nafarroako Elikagaien Bankuak, esaterako: olio, kakao disolbagarria, gailetak, pasta, lekale kontserbak edota arrain kontserbak. Elikagai bankutik 29.000 nafarrek bizi duten pobrezia eta prekarietateari aurre egiteko elkartzasun keinua egitea eskatu diote jendarteari.

Garagarzaroan beste jatekoen bilketa antolatu zuten. Bilketa hura behar bezala egiteko 3.000 boluntario aritu ziren lanean. Asteburuan boluntario lanean aritu nahi duenak www.bancoalimentosnavarra.org web orriaren, 636 693 617 telefono zenbakiaren edo granrecogidaban@gmail.com e-postaren bidez eman dezake izena.



Sari banaketa. NAFAR GOBERNUA

Sari bikoitza bular minbiziaren kontrako Sarayrendako

XSaray elkarteak Nafarroako Ohorezko Domina jasoko du Uxue Barkos Berruezo lehendakariaren eskutik astelehen eguerdian. Bular minbiziaren kontrala egiten du Saray elkarteak eta gobernuaren ohorezko sari horrekin elkartearen lana aitortu nahi du: "gaixotasun horrek kaltetutako pertsona zein familiei zuzenduta eskaintzen duen laguntza psikosoziala zein lan eta estetika arloan ematen duen babesagatik, eta hezkuntzan, prebentzioan eta garapen pertsonalean ematen duen aholkularitzagatik".

Bestetik, V. Hiritar Bikaintasun Saria jaso zuen astelehenean Saray elkarte lehendakari orde Mari Jose Oraa Ezker olaztiarrak. XVIII. Nafarroako Bikaintasun Sarien barruan Diario de Noticias egunkariak banatzen duen saria da aipatutakoa eta egunkariko irakurleek hiru hautagaien artean aukeratu zezaketen eta Oraak botoen % 55,35 eskuratu zituen. Boto-emalerei eskerrak eman zizkien.

Ziordiarrek Santa Luzia ospakizunaren zain daude

Ziordiko ospakizunen egutegian gorritz markatutako egunetako bat da abenduaren 13a, Santa Luzia. Garai batean bestelako ospakizunak egiten ziren, ermita zegoelako, besteak beste. Aurten 19:30etik aurrera pintxopotea izanen da bi tabernetan, gaztetxean eta elkarteetan. Jendearen batetik besterako ibilerak trikitilariak animatuko dituzte.

Gazte Asanbladek abenduaren 6an badute zer landu

Erroetara joz, pauso berria zerumugara! lelopean Sakanako Gazte Asanbladen arteko jardunaldiak burutzen ari dira azaroan eta abenduan. Jardunaldi horien barruan, abenduaren 6an, ostegunetan, Espainiar Konstituzioaren egunean, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Sakanako Gazte Asanbladek Etxarri Aranatzan.

Lehenik eta behin, 11:00etan herri eskola izanen da gaztetxean, Ikasle Abertzaleek antolatutakoa. 16:00etan, gune autogestionatuei buruzko mahai-ingurua hartuko du gaztetxeak. Errekaleor, Maravillas eta Lizarrako gaztetxeetako kideekin batera, *Zer dira gune autogestionatuak?* gaiaren inguruan aritzeko aukera izango dute gazte sakandarrek. Gune autogestionatuak sistemaren hutsuneak gestioatzeko espazio soilak edo sistema bera gainditzeko proiektu politikoak diren hausnartuko dute. Bukatzeko, 19:00etan *Jai egun arrotzei in-tsumisioa!* lelopean manifestazioa egingen dute.

Alonso Ahal Duguko parlamentuaren zerrendan

Ahal Duguk jakinarazi du Nafarroako lehendakari gai Mikel Builek Nafarroako Parlamenturako hautagaitza onartua izan dela. Primarioetan Builen zerrendaren aldeko 604 boto eta 64 boto txuri izan ziren. Gauzak horrela, Virginia Alonso Aparicio altsasuarra zerrendan 4. postuan egonen da. Alonso Gozen Altsasuko zinegotzia da gaur.

Korres EH Bilduren parlamentuko zerrendan

Koalizio abertzaleak Nafarroako Parlamentuko zerrenda osatzeko primarioak egin ditu. Jakina zen Bakartxo Ruiz izanen dela EH Bilduren lehendakari-gaia. Asteburuan egindako prozesuaren bidez zehaztu da parlamenturako hautagaitza eta hartan Esther Korres altsasuarra 12. postuan dago. 749 pertsonen parte hartu dute aukeraketan.

“Betidanik Irache Beilatokiak”

IRACHE

tanatorioak

Berritutako tanatorioa Altsasun

Irache tanatorio taldeak Altsasuko tanatorioan berrikuntza lanak egin ditu. Faxadan beirate handiak jarri eta, horrela, kanpoko argia eraikineraren sartzen da. Barruko aldea ere berritu dute, espazioen banaketa berria eginez. Sartu eta ezkaratza opatuko dugu. Eskuinera, beirate ondotik, beila egiteko bi gela daude, kaleko argiz beteta. Sarrera parean bulegoa eta erabilera anitzeko gela dago. Azken horretan, hilkutxien erakusketa dute, baina behar den guztietan kendu eta beila gela bihurtu daiteke. Erraustutakoen hautsak jasotzeko ontzien erakusketak, komunak, tanatopraxia gelak eta biltegiak osatzen dute tanatorioa, 300 metro karratu dituenak. Iracheren Altsasuko tanatorioan bost langile aritzen dira lanean, lauk ehorzketaren zerbitzuen ardura dute eta besteak garbiketarena. Urtero 100 bat zerbitzu ematen dituzte.

Berritutako tanatorioa 2004ko azaroaren 21ean mustu zuten, beraz, 14 urte dira

zabalik dagoela. Betelukoarekin, Leitzaokoarekin, Lekunberrikoarekin eta Irurtzungoarekin batera Malkorrate elkarteko tanatorioa da. Elkarte hori aldi berean Irache tanatorioak taldeko kide da.

Irache taldeko inbertsio honek instalazioen kalitatean eragina izan nahi du eta bailarako bezero guztien zerbitzuan hobekuntza sendoa.

Lanek zortzi aste iraun dute eta haien mustutzeraren ostiralean Altsasuko apaiz berria, Patxi Izko, Altsasuko alkate Javier Ollo, Irache taldeko ohorezko presidente Pedro Mari Ardaiz Aldea, Abraham Santos Ardaiz eta Guillermo Perez Azkona, Lorena Sanchez Garraza zuzendari nagusia, taldeko akziodunak, enpresako langileak, Sakanako hornitzaileak, Josefina Arregi klinikako kudeatzailea eta eraikuntza enpresako ordezkariak elkartu ziren. Azaroaren 25ean, berriz, ate irekien jardunaldia egin zuten eta hainbat sakandarrek azpiegitura berritua bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten.



Argindarra eskuko telefonotik kudeatzen

Sakanako energia-kudeaketarako adimendun tresnaren bidez udaletako eta Sakanako Mankomunitateko 210 elektrizitate kontratu kudeatuko dituzte hautetsiek. Abendutik aurrera gas kontratuak ere kudeatuko dituzte

SAKANA

Hispanista Labs enpresak garatutako e-Mehir plataforma erabiltzeko aukera izan zuten 20 udal ordezkariak asteartean. Sakanako energia-kudeaketarako adimendun tresnaren aurkezpenan izan zen hori, Lakuntzako kultur etxean. Ibarreko 15 udalerrriak eta Sakanako Mankomunitateak plataforma bateratu horren bidez, udal zerbitzu nagusien kontrol automatikoa izanen dute denbora errealean. Euren eskuko telefonoaren bidez argindarraren momentuko kudeaketan teknologiak ematen dituen abantailak eta onurak zein diren ezagutzeko aukera izan zuten udal hautetsiek.

Sakanako Garapen Agentziako (SGA) Aintzane Iriberrik azaldu digunez, "plataformaren bidez udal arduradunek hainbat datu ikuskatzeko aukera dute: unean-uneko kontsumo puntuak; joan den urteko hilabete bereko kontsumoarekin alderaketak; herriko eta Sakanako biztanle kopuruaren araberrako kontsumo ratioak, konparazioak egiteko; alarma piztea kontsumo desbideraketak daudenean; behar baino argindar gehiago kontsumitu denean jasotako penalizazioak eta potentzia murriztean aurrez daitekeena".



210 kontratu horiek 3.399,74 MWh argindar kontsumoa dute, sakandarreko 1.124.

Iriberrik azaldu digunez, argindar kontsumoen kontrolarekin hasi dira. Guztira 210 kontratu kontrolatzen ditu plataformak. "2015ean udalen energia azterketa egin genuen eta orduan potentziaren kontrola sustatu genuen. Baina gauza batzuk egiteko gelditu ziren. Edo argiteria publikoa aldatu eta, ondorioz, kontratua doitzeko tresnari ez izatean ez dira halakoak ikusten. Horregatik plataforma aktibatzean hainbat alarma piztu dira". SGAko industria eta energia arloko teknikariak esan

digunez, "kontratuetan doitze txikiak eginez 23.831 euro aurrezteko aukera dago. Banan bana begiratu behar dira".

Argindar kontsumoekin abiarazi dute plataforma, baina abenduan 33 gas kontratu sartuko dituzte. Aukera gehiago ematen duenez, eta Mankomunitateko digitalizazio estrategiarekin bat egiten duenez, ura eta hondakin bilketako zerbitzuak sar litezke etorkizunean. Hala ere, Iriberrik azaldu digunez, "kudeaketa adimentsuko bide-orria identifikatzen ari gara gaur egun".



Xabier Senar kontzeju buruak San Klemente festetan jaso zuen diploma. SGA

Nafarroako saria argindar mikro-sarearendako

Lizarragako Kontzejuak Jose Ignacio Sanz Arbizu Tokiko Garapen Jasangarriko Praktika Egokien X. saria jaso du

LIZARRAGA

Lizarragako Kontzejuak martxan jarritako argindarra sortzeko mikro sareak Nafarroako Gobernuak sustatutako saria jaso zuen Obanosen ostiralean. Sarraketaren helburua da pertsonen bizitza-baldintzak hobetzeko herrietako eta hirietako lorpen jasangarri onenak nabarmentzea. Garapen jasangarriko ekimen onenak saritzen ditu bi urtean behin sari horiek. Lizarragako Kontzejuak 1.000 euroko saria, diploma eta trofeoa jaso zituen. Gainera, Nafarroako tokiko garapen jasangarriko praktika egokien 10. katalogoan sartuko da proiektua eta katalogo horren banaketa egingen da. Azkenik, Nazio Batuen Erakundeak sustatutako praktika onenen nazioarteko sarira sartu da zuzenean.

Lizarragako argindar mikro-sareak % 100 berriztagarria den

energiar hornitzen du herria. Horretarako, 14.85 Kw-ra arteko energia sortzen duten plaka fotovoltaikoak dauzka. Energia horren biltegiatze-soluzioa 330.000 litroko bi depositutan oinarritzen da. Bien artean 100 metroko maila edo altuera dago. Bi biltegi horiek 11 Kw sor ditzakeen ponpa eta Pelton turbinaren baten bidez konektatzen dira. Horrela, eguneko parte batean, tokiko kontsumoak plaka fotovoltaikoaren bidez egingo lirateke, eta soberako energiarekin ura bidaltzen da beheko depositutik goikora, energia gordez.

Ostiralekoa ez da Lizarragako mikro-sareak jaso duen aurreneko aitortza. Maiatzean Mardrilgo Energiaren eta Ingurumenaren Nazioarteko Azokan, Genera 2018an, Berrikuntzaren Galerian erakutsi ziren 20 proiektu aitzindarietako bat izan zen Lizarragakoa.

Kontzejuak aurtengo aurrekontuei segida eman die

Kontzejuan ez dute inbertsio handirik aurreikusit. Dirua lortzeko baso aprobetxamendua salduko du aurki

UNANU

Unanuko Kontzejuak heldu den urteko aurrekontuak onartu ditu, 127.920 euro guztira. Joseba Imaz Berastegi kontzeju-buruak esan digunez, aurtengo aurrekontuen segida

izanen dira heldu den urtekoak. Imazek azaldu digunez, "legegintzaldi honetan diru-aurrezpena edo diru-sarreraren inbertsioak egin ditugu". Gogoratu du joan den urtean maistruban etxea konpondu

zutela eta hura alokatuta kontzejuak dagoeneko diru-sarrerak dituela.

Eta aurreratu digu aurki herriko argiteria aldatu egingen dutela eta egun argien ordez LEDak jarriko dituztela. "Guztira 47 dira, eta elkarteko kalean bat gehiago jarriko dugu, argi gutxi baitzegoen han". Inbertsio horrekin argindar kontsumoa murriztu eta dirua aurreztu nahi du kontzejuak. Horrekin batera, kontratuak berraztertuko dituzte. Kontzejuko ardura-



Unanuko ikuspegia. ARTXIBOA

dunek Nafarroako Gobernuak emandako erabilera askeko funtseko 22.663,17 euroak erabiliko dituzte inbertsio horren zatia pagatzeko. Gainontzekoa bere poltsatik jarriko du kontzejuak. Heldu den urterako inbertsio handirik ez du aurreikusit Imazek. Hala ere, urtea despeditu aurretik edo heldu den urte hasieran baso aprobetxamendua saldu nahi luke Unanuko kontzejuko presidentek, "hurrengo legegintzaldirako dirua izateko".

Hildakoen zifren atzean emakumezkoen bizitzak

Igandean izan zen Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako egunaren harira udaletik mezu hori zabaldu du udalak, eta altsasuarrei antolatutako ekitaldietan parte hartzera gonbidatu ditu

ALTSASU

Azaroaren 25a, domeka, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna da. Hori dela eta, Altsasuko Udalak azken bilkuran erakunde-adierazpena onartu zuen aho batez. Adierazpen horretan udalak "gaitzetsi egiten ditu emakumeek edozein esparrutan eta testuingurutan pairatzen dituzten askotariko diskriminazioek eragindako indarkeria sexista mota guztiak". Aldi berean, udalak konpromisoa adierazi zuen "modu aktiboan lanean jarraitzeko desparekotasunen aurka, zaurgarritasun-egoeren eta emakume zein neskatuen aurkako indarkeria-egoeren sorburu baitira; eta gonbita egin nahi diegu hala gobernuai eta erakunde publikoei nola nazioarteko entitateei eta gizarte zibilarri, gogoeta egin eta konpromisoak har ditzaten".

Horrekin batera, Altsasuko Udalak "elkartasuna" azaldu die "eraso edo hil dituzten emakumei, indarkeria sexistari aurre egin behar dioten emakume eta neskatuei". Azkenik, udalak altsasuarrek gonbidatu ditu "emakumeen kontrako indarkeria gaitzetsi eta hura deuseztatze konpromisoa adierazteko, baita patriarkatuaren kontrol mota guztiak eta emakumei haien askatasuna eta autonomia erabiltzen eragozten dieten muga eta baldintza guztiak salatzea ere". Baita domekan antolatutako kontzentrazioan parte hartzera ere.

Argudioak

Altsasuko Udaleko kideendako domekan "indarkeria matxistaren egiturazko izaera nabarmenduko" da, "horixe baita gizonezkoek emakumeengan dituzten botere-harreman asimetrikoen adierazpenetako bat. Egitura patriarkalari lotzen zaion indarkeria da, emakume eta gizo-



Altsasuko udal bilkura. ARTXIBOA

nen arteko desberdinkeriak sortzen eta birsortzen dituen bizitzaren esparru guztietan eta adin-tarte guztietan". Udal ordezkarien iritziz, "genero-desparekotasuna gaur egun gertatzen den giza eskubideen urraketarik iraunkorra den heinean, aurten hil dituzten emakumeen kopurua bihurtu nahi dugu arretagune, egunez egun etengabeko jario baten moduan entzuten dugun hori".

Garai batean emakumeen kontrako indarkeria dela medio hildakoen kopurua ez zen zenbatzen. Kontaketa hori egitea urtetan aldarrikapen bat izan zela gogoratu dute udaletik. Lorpen horrek "arazoaren larritasuna neurtzeko bide eman baitzuen, eta hartara, arazoa desagerrarazteko politikak diseinatu eta baliabideak bideratzeko". Baina "hil dituzten emakumeen zenbaketa amaigabearekin ohituak garela dirudi, are, sobera ohituak, ematen baitu jada ohikoa dela guretako ia egunero gizon batek emakume bat hiltzea. Ia-ia egunero izaten ditugu erasotutako, mehatxatutako diren emakumeen berri, beren askatasuna mugaturik ikusi eta

beldurrez bizitzera kondenatuak direnena". Hildako kopurua hutsak baino, "zenbaki bakoitzaren atzean emakume bati etendako bizia dago. Proiektu eta ilusioz beteriko bizia, sekula berriz biziko ez dena".

Datua eta egitaraua

Indarkeria matxistagatik 947 emakume guztiak hil dituzte espainiar estatuan 2003. urtetik.

Abenduak 4, asteartea

• **12:30** Antzerkia: Bi ero diskotekan, lortia kultur gunean. DBHko 4. mailako eta LHko 1. mailako ikasleendako.

Abenduak 10, astelehena

• **19:00** Volar dokumentalaren emanaldia. Ondoren, Nerea Del Campo Agirrek, protagonistetako batek gidatutako solasaldia.



Alarma feminista matxismoaren kontra leloarekin egindako igandeko kontzentrazioa.

Hilketak emakumezkoen aurkako indarkeriaren izebergaren punta

Eguneroko erasoen aurrean "autodefentsa feminista eta sare feministak eratzea" aldarrikatu zuten

ALTSASU

Altsasuko mugimendu feministak deituta, *Alarma feminista matxismoaren kontra!!!* lelopean 150 bat pertsona elkartu ziren udaletxearen parean igandean. Adin guztietako altsasuarrekin batera udal ordezkariak zeuden. Feministek, "bereziki" nabarmendu zuten, "indarkeria fisikoa, bikotean ematen den indarkeria fisikoa eta emakume erailak izeberg handi baten punta" direla. Indarkeria matxista emakumezkoek egunerokoan sufritzen dutela gaztigatu zuten, "etxean, dendetan, azokan, tabernetan, autobusean, telebistan, kalean... egunerokoan gauden toki horietan guztietan". Ziurtatu zuten, "egoera guztiek ez dute ikusten diren arrastorik uzten, indarkeria guztiek ez dute ubeldurarik uzten gorputzean. Baina egunero sufritzen ditugu".

Mugimendu feministako kideek "sistema patriarkalaren ezaugarriak eta ondorioak sufritzeaz nazkatuta" daudela gaztigatu zuten. Indarkeria matxistari aurre egiteko "autodefentsa feminista eta sare feministak eratzea" deitu zuten. "Sistema patriarkal honek ez gaitu babestuko, ez digu gure eskubideak hartzen utziko. Feminismoa izan da erasotutak izaten ari ginela erakutsi diguna. Beraz, aurrera jarraitu behar dugu, gure borroka ez baitu etenik".

Eguneroko erasoak

Altsasuko Mugimendu feministako kideek esandako guztiaren

adibideak zerrendatu zituzten: "tabernan kaña eskatu arren kafea jarri didate; zerbitzari lanetan bezeroek irribarra eskatu didate, eta nire gizona lankideari ez; kalean piropekin beldurtu naute; emakumezkoa izateagatik gauzak modu sinpleago batean azaldu dizkidate; etorkina izateagatik adineko jendea zaintzen egon behar dut, nire senideak ikusten ez ditudan bitartean; bi lagun neskekin egon arren, bakarrik nagoen galdetzen didate; ez naute soldadura lanak egiteko deitzen; haserretzean histeriko deitzen naute; etxeko garbiketarekin lagunduko didatela esaten didate; kalean, askotan, beldurtzen naiz". Igandean eman zituzten adibideen artean ere bazeuden: "janzeragatik epaitzen naute; miseriazko soldatagatik garbiketa lanak egin behar ditut; zapia eramateagatik emakumezko zapaldu gisa tratatu naute; haurrak ez izatea erabaki dut; txikitik popinak eta sukaldeko jostailuak oparitu zizkidaten; izaera horrekin ez zaitu inork maitatuko; emakumezko izateagatik emozio-babes handiagoa eskatzen didate; mutil bati ez erantzuteagatik whatsapp bidez jazarri naute; etxeko lanetan urtetan aritu arren langabezia kobratzeko aukerarik ez dut; feminismo txuria nitaz ahaztu da, txuria ez naizelako; kalera dotore ateratzea exijitzen didate; feminizatutako lanak baloratzen ez direnez, ez dut lan eskubiderik..."

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 30

ARBIZU Agroekologia jardunaldiak. Merkaturatze kolektiboaren artikulazioa. Izena emateko: nviana@akanagaratzen.com edo 672688591.

19:00etan, Utzугanen.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.

19:00etan, Kale Nagusiko 7.ean.

ARBIZU Azken arnasa arte. Gure nagusien duintasan eta kemenari gorazarrea dokumentalaren emanaldia.

19:00etan, udaletxean.

ALTSASU Sakanako liburutegiak, aterpe naturalak kanpainaren hamaiera emanaldia: Hasier Larretxearen eta familiaren Larremotzetik ikuskizun poetikoa.

19:00etan, lortia kultur gunean.

SAKANA Hileko azken ostiraleko Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu,

Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Olaztin.

20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.

20:00etan, udaletxe parean.

ETXARRI ARANATZ Tanntaka konpainiaren Soka ikuskizuna.

22:00etan, kultur etxean.

ALTSASU El reino filmaren emanaldia.

22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 1

ALTSASU Gazte agenda. Euskal pintxo lehiaketa.

18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Nueve Teatro konpainiaren Cruzadas antzezlaren emanaldia.

19:30etan, lortia kultur gunean.

IGANDEA 2

ALTSASU Mantxoara 48ko km-tako ibilbidea eginen dute Barranka Txirrindulari Taldeko



OLAZTI Liburutegiak, aterpe naturalak. Zenbait artisten Urbasari buruzko pintura erakusketa.

Azaroaren 30a arte. Astelehenetik ostiralera 16:30etik 20:30era, liburutegian.



ALTSASU. Navarorum euskararen gaineko dokumentu nafarren bi mila urteko ondarea. Abenduaren 1etik 23ra. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatetan 18:30etik aurrera eta igandetan 16:00etatik 20:30era, lortian.



OLAZTI Jaiotzen erakusketa. Abenduaren 8tik urtarrilaren 7ra. Astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara, larunbatetan 17:30etik 20:00etara eta igandetan eta jaiegunetan 13:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era.

mendi atalekoek.

07:30ean, Urbasako portuaren sarreran.

ALTSASU Gazte agenda. Kutxidazu bidea, Ixabel filmaren emanaldia.

18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU El reino filmaren emanaldia.

19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.

20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 3

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako elkarretaratzea.

12:30ean, Zumalakarregi plazan.

IRURTZUN Nafarroaren eguna. Berriozargo Elkarrekin abesbatza.

12:45ean, San Martin elizan.

LAKUNTZA Nafarroaren eguna. Erkudengo Ama abesbatzaren emanaldia.

13:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Nafarroaren eguna. Agrupacion Coral Tafallesaren emanaldia.

13:00etan, kultur etxean.

OLAZTI Nafarroaren eguna.

Etxarri Aranazko abesbatza.

13:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Pirritx, Porrotx eta Marimototsen Musua ikuskizuna. Aizpea euskaltzaleen topagunea.

17:00etan, kiroldegian.

UHARTE ARAKIL Euskararen nazioarteko eguna. Sergio de Andresen Magikus familiarreko antzerkia.

17:00etan, Alondegia aretoa.

ALTSASU Gazte agenda. Escape room.

18:00etan, Intxostiapuntan.

OSTEGUNA 6

IRURTZUN Albaola museora txangoa. Aizpea elkarteak antolatuta.

09:30ean, autobus geltokian.

ETXARRI ARANATZ Sakanako Gazte Asanbladaren arteko jardunaldiak.

11:00etatik aurrera, gaztetxean.

ETXARRI ARANATZ Jai egun arrotzei intsumisioa lelopean manifestazioa.

19:00etan, plazatik.

ETXARRI ARANATZ Gudariak direlako, amnistia osoa. AEMren Kontzentrazioa.

19:30ean, plazan.

ALTSASU Colette filma.

19:30ean, lortia kultur gunean.

OSTIRALA 7

ALTSASU Gazte agenda. Escape room.

18:00etan, Intxostiapuntan.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.

19:00etan, Kale Nagusiko 7. zebakiaren parean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.

20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.

20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Colette filmaren emanaldia.

19:30etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 8

ALTSASU Go!azen ikuskizuna.

17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU. Gazte agenda. Escape room.

18:00etan, Intxostiapuntan.

IGANDEA 9

ALTSASU Arabako lautadan 68 km-tako ibilbidea eginen dute Barranka Txirrindulari Taldeko mendi atalekoek.

07:30ean, taldearen egoitza.

ZORION AGURRAK



Mario
Aupa Mario! Beste urte batez ere zorionten zaitugu! Oso urte zorionsua opa dizugu! Amatxo, Amaia, Ainhoa eta Ametsen partez. Muxu asko guapo!



Haitz Lazkoz
Ginea Zorionak ederra! Asteazkenean 6 urte beteko dituzu! Ondo pasa aitabxo, Ainetz, lizarragakuek eta amiñen partez!



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com
www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



ALTSASU Gazte agenda.
Escape room.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Colette filmaren emanaldia.
19:30etan, lortian.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 10

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako elkarretaratzea.
19:00ean, udaletxearen parean.

ALTSASU Volar dokumentalaren emanaldia. Ondoren, Nerea del Campo dokumentalaren

protagonistako batekin solasaldia.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ASTEARTEA 4

ALTSASU Palestina. Etengabeko amesgaiztoa hitzaldia. Hizlaria: Bilal Jado palestinarra. Sakanako Askapena.
18:30ean, Gure Etxean.

OSTEGUNA 13

ETXARRI ARANATZ Irakurle taldea Anjel Lertxundi idazlearen Hamaseigarrenean aidanez liburuz hizketatzeko bilduko da.
19:00etan, liburutegian.

ALTSASU Superlopez filma.
19:30ean, lortian.

IRAGARKI SAILKATUAK

ALTZARIAK

SALGAI
Sofa-oheta SALGAI. Gubxi erabilia, oso egoera onean dago. (www.guaxe.eus/iragarkiak web-orrian argazkia ikusgai). 150 euro. Deitu 696126174

IBILGAILUA

SALGAI
Seat Ibiza Sport Rider autoa salgai. Beltza, 100 cv, 2007koa. Egoera onean. Kontzesionarioan egindako errebisioak ziurtagiriek. 152000Km 4500 euro. Interesatuak deitu 690 115 640 tfnora

LEHIAKETAK

GAZTEWOOD. Altsasuko gaztebaxaren III. Film laburren txapelketa. Gehie-

nez 15 minutu. Lanak MP4 formatuan, DVDan edo pendrivean aurkeztu behar dira 2019ko martxoaren 19a baino lehen. Informazio gehiagorako gazteewood@gmail.com edo sare sozialetan gazteewood profileen.

OHARRAK

Etxarriko irakurle taldea. Abenduaren 13an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian elkartu eta Anjel Lertxundiren "Hamaseigarrenean aidanez" liburuz hizketatzeko dira.

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

OPATUTAKOAK/ GALDUTAKOAK

ERLOJUA ALTSASUN. Esferaren atzeko aldean MR hizkiak eta 22-6-53 eta 22-6-78 datak ditu idatziak. Longines markakoa. Galdu duenak Guaxe astekarira hots egin dezala, 948 564 275

Altsasuko Udaltzaingoko Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diruzorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bibixiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

www.iragarkilaburak.eus

OROIGARRIA



Ane Begiristain Igoa

"Mundua ederrago egiten zenuen zure bihotza eta alaitasunarekin"

Ez zaitugu inoiz ahaztuko

Kobeko taberna

OROIGARRIA



Oihan Garmendia Arruabarrena Ander Azpiazu Etxarri

Beti gu goguen

Kintuek

OROIGARRIA



Borja Ondarra Ondarra

XI. urtemuga

Joan zinen eta gurekin zaude ulertzen zaila da sarri
Beti gurekin dagoena ere ezin daiteke ekarri
Hainbat urtetan, lagun artean, dena emanez elkarri
Maitasuna da izandakoen eta garenon lokarri
Bihotz askotan duzu lekua bizi zaren ezaugarri

Zure kuadrilla



OROIGARRIA



Patxi Barandiaran Lopez de Munain

Lurteurrena

"Eta min eman arte zure falta izan..."

Ama, Ibai, Aritz eta Maider

Olaztin, 2018ko abenduaren 2an



JAIOTZAK

• **Xabat Azkune Alegria**, azaroaren 19an Lakuntzan

EZKONTZAK

• **Josu Marin Lizarraga eta Maialen Ansorena Alkoz**, azaroaren 27an Lizarragan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
@Grupolrache
f Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es

SAKANAKO TOPAKETAK

PARTIDUAK

IGANDEAN KIMUAK OLAZTIN

10:00 Etxarri Aranatz 1 – Lagun Artea 07

11:00 Etxarri Aranatz A – Urdiain

12:00 Etxarri Aranatz 1A – Lagun Artea 08A

13:00 Lagun Artea 081 – Tipi Tapa

Sakanako Futbol Topaketak:

kimuen 4. jardunaldia

Sakanako Futbol Topaketak Mank-ek antolatzen ditu, Sakanako futbol klub eta taldeen laguntzarekin. Futbola sustatzea da helburua, eta txikienei txapelketa batean parte-hartzea ahalbidertu nahi zaie, baina ez da txapelketa lehiakorra. Igandean kimuen mailako 4. jardunaldia jokatu da Olaztin.

ELOMENDI TXAPELKETA

8. JARDUNALDIKO EMAITZA

Modernillo – Zaldua 4-3

SAILKAPENA

ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA

1 Barasoain 17

2 Zaldua 16

PARTIDUA

LARUNBATEAN

Zehaztu gabe Zaldua - Apolo (Lekunberri)

Zalduak lidergoa galdu du

Elomendiko Futbol Txapelketako 8. jardunaldian Arakilgo Zalduak lidergoa galdu zuen, partida oso estuan Modernillo taldeak 4 eta 3 irabazi baitzuen. Horrela, Barasoain da egungo liderra, Zalduari puntu bat aterata.

SASKIBALOIA CBASK-ek alde handiarekin irabazi zion Egüesi

Autonomia Arteko 2. mailan asteburu honetan 8. jardunaldia jokatu zen. CBASK Altsasuk Olatzen jokatu zuen, Valle de Egüesen kontra. Partida bikaina egin zuten altsasuarrek eta alde handiarekin irabazi zioten Valle de Egüesi (43 eta 73).

Zortzigarren jardunaldia jokatuta, Autonomia Arteko 2. mailako lider jarraitzen du Domiberia taldeak (14 puntu). CBASK taldeak postu bat egin du gora eta orain seigarrena da (10 puntu). Larunbatean CBASK-ek 9 punturekin sailkapenean zortzigarrena den Larraona A taldea hartuko du Zelandi kiroldegian, 18:00etan hasiko den partidari.

Martija eta Zabaleta elkarren kontra Eibarren

PILOTA Binakako final laurdenetako 2. jardunaldian Altuna III.ak eta Martijak Irribarria eta Zabaleta izanen dituzte aurkari gaur Eibarren (ETB1) eta Ezkurdia eta Galarza Elezkano II.aren eta Rezustaren kontra ariko dira bihar Bartzelonan

Binakako Txapelketako final laurdenetako 2. jardunaldian A multzoan bi sakandarren arteko lehia dago jokoan gaur, ostira-lean, Eibarren. Jokin Altunak eta Julen Martijak Iker Irribarria eta Jose Javier Zabaleta izango dituzte aurkari Astelenan 17:00etan hasiko den jaialdian. Lehen jardunaldia irabaztetik datoz bi bikoak eta, hortaz, bi bikote indartsuen arteko talka da gaur Eibarren espero dena.

Asteazkenean egin zuten pilota aukeraketa, Astelenan, eta bi bikoek faboritoaren presioa kendu zuten gaineratik, eta kontrakoendako hitz ederrak ere. Altunak eta Martijak pilota apalagoak hautatu zituzten, Irribarriaren eta Zabaletaren indarrari eta abiadurari aurre egiteko.

Bestalde, Bartzelonan 2. jardunaldiko partida bat hartuko du. Joseba Ezkurdia eta Ladis Galarza bihar, larunbatean, 18:00etan Elezkano II.aren eta Rezustaren kontra arituko dira.



Martija, Altuna, Irribarria eta Zabaleta, Astelenan. ASPE

Vall d'Hebron frontoian. Bi bikoak lehen jardunaldian ongi arituzetik baina galtzetik datoz eta, hortaz, jokoan dagoen puntua poltsikoratzeko duten guztia emango dute. Sarrerren salmenta ongi omen doa.

B multzoari dagokionez, Olaiola II.ak eta Albisuk Bengoetxea VI.a eta Imaz izango dituzte aurkari bihar Lizarran (ETB1) eta, igandean, Urrutik eta Aretxabaletak Artola eta Mariezkurrena, Bilbon (ETB1).

Asteko hirugarren sorpresa eman nahi du Osasuna Magnak

ARETO FUTBOLA Inter Movistarri eta Aspil Vidal irabazi eta gero, bihar Barcelonan irabazi nahi dute berdeek

Astea bikaina izaten ari da Areto Futboleko 1. Mailan dabilen Osasuna Magna Xotarendako. Larunbatean Imanol Arregiren mutilek sorpresa eman zuten Madrilen eta 1 eta 2 irabazi zieten Movistar Interreko izarrei, Araçak eta Chinok sartutako golei esker.

Asteartean ligako 12. jardunaldia zegoen jokoan, jardunaldi berezia, Osasuna Magnak Aspil Vidal Ribera de Navarra talde tuterarra hartu baitzuen Anaitasunan. Ekipazio gorriarekin jokatu zuten berdeek ha-

sieratik hartu zuten partidaren kontrola. Usinek mustu zuen Osasuna Magnaren markagailua, eta nahiz eta Aspil Vidal saiatu, Osasunako Asier Llamas atezainak bikain zaindu zuen atea. Rafa Usinen bigarren golari Roberto Martilen gola gehitu zitzaion eta atsedendira 3 eta 0 irabazten joan ziren berdeak.

Bigarren zatian gehiago arriskatu zuen Aspil Vidal Ribera de Navarrak, baina Osasuna Magnak bere horretan jarraitu zuen eta Araçak, Rafa Usinek eta Eric Martelek kontrako atean

asmatu eta gero, 6 eta 1 irabazi zuen Osasuna Magnak.

Imanol Arregi entrenatzaileak bere taldea "momentu onean" dagoela nabarmendu zuen. "Taldea partida ona egin du beste behin. Garaipen handia da hau, Kopara gerturatzen gaituena eta dagoeneko 8 partida daramatzaugu jarraian galdu gabe. Taldea ongi dago eta ea horrela jarraidezakegun".

Bihar Bartzelona aurkari

Lehen mailako sailkapenean Palma Futsal da liderra (28 puntu) eta Osasuna Magna bosgarren postura igo da (21 puntu). Beraz, sailkapenean bigarrena den Barcelona Lassa izango dute aurkari, 16:00etan. "Ea hirugarren sorpresa jarraian ematen dugun" aipatu zuen Imanol Arregi entrenatzaileak.

FUTBOL PREFERENTEA

11. JARDUNALDIKO EMAITZA

Artajones - Etxarri Aranatz 1-3

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Lagunak 20

4 Etxarri Aranatz 18

PARTIDUA

LARUNBATEAN LIGAKO PARTIDA

12:00 Etxarri - Burlades (San Donato)

ABENDUAREN 6AN IMQ KOPAKOA

18:00 Oberena - Etxarri (Oberenan)

Etxarri laugarrena da

Xabaten, Javierren eta Alainen golekiri irabazi eta gero, 4.a da Etxarri. Ligako partida eta IMQ Kopakoa ditu jokoan hurrengo egunetan.

FUTBOL ERREGIONALA

12. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Lagun Artea - Beti Kozkor 2-0

Altsasu - Gazte Berriak 4-2

SAILKAPENA

ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Lagun Artea 29

4 Altsasu 21

PARTIDUAK

LARUNBATEAN

19:30 Gazte Berriak - Lagun Artea (Antsoain)

IGANDEAN

10:30 Iruña B - Altsasu (Taxoate, 4)

Lagunek eta Altsasuk irabazi

Jardunaldi borobila gure taldeendako. Lagun Arteak partida oso estuan Beti Kozkorri irabazi zion, Burilloren eta Unairen bi golei esker, eta lidergoari eustea lortu zuen. 1 eta 2 gaitzen joan eta gero, Altsasuk buelta eman zion partidari eta 4 eta 2 hartu zuen mendean Gazte Berriak, Imanol Loboren, Gorkaren, Pauletteren eta Christianen golekiri.

EMAKUM. ERREGIONALA

12. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Ardoi 3-2

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Osasuna 36

11 Altsasu 13

PARTIDUAK

IGANDEAN

12:00 Baztan - Altsasu (Giltxaurdin)

Altsasuren garaipen garrantzitsua

Dantzalekun Zizurko Ardoi 3 eta 2 irabazi eta gero, 3 puntu oso garrantzitsua lortu zituzten Altsasuko neskek. Garaipenak igandean, sailkapenean 14.a den Baztan taldearen kontra aritzeko animoa eman die altsasuarrei.



Lehen jardunaldiko partida bat. IÑIGO ARITZA

Iñigo Aritza ikastolako txapelketa aurrera

PILOTA Igandean txapelketako 2. jardunaldia jokatu da ikastolako pilotalekuan

50 neska-mutiko ari dira Iñigo Aritza ikastolako pilota txapelketan parte hartzen. Lehen jardunaldia jokatu, igandean bigarrenari ekingo diote. **Emaitzak: guaix.eus**

2. jardunaldia

Umeak, benjaminak

- Ekaitz Zufiaurre - Ekhi Azpillikueta
- Igarki Agirre - Ekaitz Berdud
- Egoi Urtasun - Edorta Amillano
- Bidane Fdez. de Garaialde - Alaine Mendia
- Garazi Gartzia - Juna Mendia
- Anitz Anda - Ekhiñe Mariñelarena
- Urko Lanza - Harri Mitxelena
- Kimetz Flores - Aratz Sanzol

Kimuak

- Aiora Agirretxe - Asier Zubiria
- Mikel Arrizabalaga - Alejandro Lopez
- Enaitz Gonzalez - Oier Carabias
- Aimar Igoa - Hodei Ulaiar
- Xabier Olaiz - Eñaut Gastesi
- Uxue Anguiano - Ainhitze Armentia
- Iraide Vergara - June Sanzol

Haurrak

- Patxi Azpeitia - Oier Mitxelena
- Asier Astiz - Peru Urteaga

Kadeteak

- Irati Lumberras - Udane Vergara



Altsasuko emakumeendako pilota eskolako bi ikasle Lander Goñi monitoreaekin entrenatzen.

Emakume pilotari taldea sortzea da helburua

PILOTA Altsasun martxan dauden emakumeendako haurren eta gazteen pilota eskoletan parte hartzera animatu dute antolatzaileek. "Entrenamenduetara hurbildu daitezela, ikus dezatela eta anima daitezela" adierazi dute

Altsasun sortu zen haurrendako emakumeendako pilota eskola sortzeko asmoa. "Altsasuko Udala kirol eskoletako partaidetza aztertzen ari da. Nesken parte-hartzea sustatu nahi dugu. Hainbat kiroletan lortu dugu, esaterako, saskibaloian, irristaketan, igeriketan, atletismoan, taekwondoan... Baina hainbat kiroletan, tartean pilotan, desber-

dintasuna oso nabarmena da. Esaterako, pilotan aurreko urtean ez zegoen neskarik" azaldu zuen Beleixe irrastian (FM 107.3) Altsasuko Udaleko kirol teknikari Sara Salazarrek.

Duela bi urte emakumezkoen futbola sustatzeko eskaintza zuzena egin zen Altsasun, Sociedad Deportiva Alsasuarekin (SDA) batera. "Oso esperientzia

positiboa izan zen, eskola mailan emakumezkoen talde bat baitugu, Emakumezkoen Futbol 8 mailan aritzen dena, eta Emakumezkoen Erregionalean lehiatzen den Altsasu. Eta futbolarekin egin genuen gauza bera egin dugu pilotarekin, uste dugulako modu hobereana dela nesken taldea sortzeko" gaineratu du Salazarrek.

Bi eskola: haurrak eta gazteak
Urrian hasi zen emakumeendako pilota eskola, 15 urte bitarteko neskei begira (2002-2009 urteen artean jaiotakoak). Altsasuko Udalak eskaintzen du, Pilotajauku klubaren laguntzarekin. "Bost neska daude entrenatzen Lander Goñi monitoreaekin, baina taldea zabalik dago, talde eder bat sortu nahi dugulako. Asteartetan 17:00etatik 18:00etara eta ostiraletan 18:00etatik 19:00etara entrenatzen dute Burunda pilotalekuan" aipatu du Salazarrek.

Talde horrekin batera, 16 urtetik gorako gazteen emakume pilota eskola sortu da Altsasun. "Gazte batzuk eskatu zuten adin gehiagoko neskendako pilota eskola sortzea, gazteen eskola. Eta eskola eskaini dugu, Sakanako Mankomunitatearen laguntzarekin. Horrela, Lander Goñirekin ostiraletan, 19:00etatik 20:00etara trebatzen dira 16 urtetik gorako neskek" azaldu digu teknikariak.

Hurbildu, ikusi eta animatu

"Interesa duten neskek hurbildu daitezela frontoira entrenamendu orduetan. Hori da kontua, frontoira hurbiltzea, ikustea, eta gustuko badute, izena ematea. Erremintan interesa dutenek baita ere" nabarmendu du teknikariak. Haurrek Altsasuko Udala kirol zerbitzuan (948 468 343) eta gazteek Mank-en (948 464 866) eman behar dute izena.

XIV. Gure Pilota Sakanako Nesken Pala Txapelketa abian

Abenduan jokatu da eta guztira 33 bikote arituko dira, helduen mailan eta gaztetxoan mailan

Sakanako Mankomunitateak, Etxarri Aranazko Gure Pilotaren, Nafarroako Gobernuaren eta Irurtzango Udalaren laguntzarekin XIV. Gure Pilota Sakanako Nesken Pala Torneoa antolatu du. Guztira 33 bikote jokatu dute, 66 palista inguruk, bi maila nagusitan banatuta: helduak (lehen maila eta bigarren maila) eta gaztetxoak, 9 urtetik gorakoak.

Txapelketa abenduan jokatu da. Helduen mailako asteburutan jokatu dute bereziki, eta gaztetxoan arteko partidak

asteazkenetik jokatu dira nagusiki, haiei ongi dagokien tar-teak aprobetxatuz.

Lehen mailako bikoteak sei dira, bigarren mailan lau bikote ariko dira eta hauei gaztetxoan mailan ariko diren bikoteak gehitu behar zaizkie. Txitoetan 5 bikote lehiatuko dira, kattagorrietan 5 bikote, Usoetan lau, Pottoketan lau eta Tximeletetan hiru. Maila nagusietako finalerdiak Etxarri Aranatzeko jokatu dira abenduaren 23an, eta final handiak toki berean, abenduaren 29an eta 30ean.



Aurreko urteko edizioko Sakanako Nesken Pala Txapelketako finalistak.

Lehen mailako partidak

Igandean, Irurtzunen (11:00), 1. mailako lehen jardunaldia jokatu da. Murillok eta Erasunek Isasmendi eta Etxaniz izango dituzte aurkari eta Larrartek eta Arrietak Irazustabarrena

eta Huizi. Abenduaren 6an Olaztin jokatu den 2. jardunaldian (11:00) Irazustabarrena eta Huizi Igoaren eta Mendizabalaren kontra ariko dira eta Isasmendi eta Etxaniz Aristorenaren eta Ruiz de Larramendiren kontra.

Sakanako kirolari onenak

KIROLDEGIA Sakanako Mankomunitateak 2017ko eta 2018ko kirolari onenak zeintzuk diren erabaki du. Guztira 8 izendapen eta bi aipamen berezi egin ditu. Ondoan dituzuenak abenduaren 14an Ihabarren eginen den ekitaldian jasoko dute aitortza

Maidar Betelu ALTSASU

Bi urtetik behin Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuak eskualdeko kirolari eta taldeak saritzen ditu Sakanako Kirolari Onenak sariketan. Horrela, aurten 2017 eta 2018ko Sakanako kirolari onenak zein izan diren erabaki eta haiek sarituko ditu.

Aukeraketa prozesua egiteko Sakanako klubei eta sakandar guztiei proposamenak bidaltzeko eskaria egin zien Mankomunitateak, eta astelehenean epaimahaia bildu eta aukeraketa egin zuen.

Ihabarren

Sari banaketa abenduaren 14an eginen da, 19:30ean, Ihabarko herriko etxean. Sari ematea eta gero auzate ederrarekin boro-bilduko da ospakizuna.

TALDE ONENAREN SARIA BI TALDEK JASOKO DUTE: ARALAR ETA BURUNDA KLUBEK

18 URTETIK GORAKO EMAKUMEAREN SARIA ERE BIKOITZA IZANEN DA, IZAR ETA OLAIA PALISTENDA KO

SARI EMATE EKITALDIA ABENDUAREN 14AN IZANGO DA, 19:30EAN, IHABARREN



UTZITAKOA

UNAI VILLALOBOS HERNAZ
(18 URTE BAINO GUTXIAGOKO GIZONA)

Proposatua: Sakanako Mankomunitatea.

Merituak: Lagunak taldeko irristalaria eta Burunda klubeko txirrindularia da altsasuarra. Irriestalarik bikaina, 2017ko Nafarroako Irriestaketa Zirkuituko abiadura txapelketan, tartean urrezko domina bat eta brontzezko bi domina lortu zituen, eta hiru domina 2017ko Espainiako Irriestaketa Txapelketan. Aurten, 2018ko Espainiako Irriestaketa txapelketan, Oviedon, bi domina lortu zituen eta, horretaz gain, aurtengo Iruñea-Gares irriestaketa maratoian 24.a sailkatu zen sailkapen orokorrean eta junior mailako txapeladuna izan zen. Txirrindularitzan Burundako junior mailako talde gizon bikaina da.



UTZITAKOA

OLGA GARCIA NDIA IJURKO
(18 URTE BAINO GUTXIAGOKO EMAKUMEA)

Proposatua: Sakanako Mankomunitatea

Merituak: 17 urte, Etxarri Aranatz. Uharte Ipar Eski Taldeko ipar-eski eskiatzailea, rollerskilaria eta biatloilaria (eskia eta tiroa) da. Ipar-eskian, Jakako teknifikazio taldeko eskiatzailea da, maila handikoa, eta Ipar-Eskiko Espainiako Kopan lehiatzen da. 2017an ipar-eskia eta tiroa uzta-tzen dituen Biatloiko mundialean parte hartu zuen, IBU Junior Cup-ean.



EKHI CONGIL MENDIOLA
(18 -35 URTE BITARTEKO GIZONA)

Proposatua: Sakanako Mankomunitatea

Merituak: Monoziklista, Etxarri Aranatz. 2017ko EC Unicycling edo Europako Monoziklo Txapelketan zazpi domina lortu zituen eta 2018ko Unicon 19 Hego Koreako Mundialean 8 domina, bi maila absolutuan eta gainontzekoak bere mailan. Munduko txapeladunordea da errepedeko 10 km-ko proban, bere mailan lehena.



UTZITAKOA

IZAR PAROT ETA OLAIA EIZAGIRRE
(18 -35 URTE BITARTEKO EMAKUMEA)

Proposatua: Sakanako Mankomunitatea

Merituak: Etxarri Aranatzko Gure Pilota taldeko palistak dira biak. Hainbat txapelketa irabazi dituzte. Tartean, 2017an Euskal Ligako 2. mailako Open mailako finaleko txapeladunak izan ziren.



UTZITAKOA

JOSE LUIS BERAZA
(35 URTE BAINO GEHIAGOKO GIZONA)

Proposatua: Sakanako Mankomunitatea

Merituak: Uharte Arakil, mendi korrikalaria. 2017an EHko Erronkako lehen beteranoa izan zen eta Nafarroako Ultrako txapeladuna. 2018an, Tenako Traileko 2K-ko lehen beteranoa, Comapedrosako lehen masterra, Zazpimendiko txapeladuna eta Hiru Haundietako lehen beteranoa. Nafarroako Bertikalen beteranoen txapeladunordea.



GINESA LOPEZ CID

(35 URTE BAINO GEHIAGOKO EMAKUMEA)

Proposatua: Sakanako Mankomunitatea

Merituak: Altsasuarra, korrikalaria. 2016an Sakanako Atletismo Kopa irabazi zuen eta 2017an Sakanako Atletismo Kopako txapel-dunordea izan zen. Atletismoa eta mendi lasterketak sustatzeko lana egiten du Sakanako Dantzaleku Atletismo taldean, eta emakumeen atletismo eskolako kidea da.



YOSEIKAN BUDO TALDEA

(EUSKARA GEHIEN BULKATU DUEN KIROL TALDEA)

Proposatua: Sakanako Mankomunitatea

Merituak: Txuixoo yoseikan budo elkarteak eta Amets Arte Martzialen Euskal Taldeen Sareko Sakanako yoseikan budo taldeak Altsasun eta Etxarri Aranatz eskaintzen dituen klase guztiak euskaraz ematen dira. Udan yoseikanpaldia egiten dute, tartean Iparraldekoekin, eta euskara da guztiak lotzen dituen hizkuntza.



IMANOL IRURTZUN ARTOLA

(AIPAMEN BEREZIA)

Proposatua: Arakilgo Udala

Merituak: Ihabarko futbol arbitroa. Maila txikienetatik hasita egin ditu arbitro lanak: Sakanako Futbol Topaketak, jubenila, erregionala, preferentea eta 3. maila. Madrilgo Talentuen Programan 3. mailako azterketak 330 arbitro hautagaien artean nota onenarekin gainditu eta gero, 2.B mailako arbitro izatea lortu du.



XANITURRI EMAKUME TALDEA (AIPAMEN BEREZIA)

Proposatua: Arakilgo Udala

Merituak: 2004an sortu zen taldea Arakilgo bailarako emakumeak elkartu ondoren. Helburu nagusia ongizate emozionala, fisikoa eta soziala lortzea da. Horretarako hitzaldiak, tailerrak eta ikastaroak antolatu dituzte urte hauetan, tartean Ihabarren egiten den Yoga ikastaroa. Erreferente polita da emakumeen saretze mailan.



ARALAR ETA BURUNDA TXIRRINDULARI TALDEAK

(SAKANAKO KIROL TALDERIK HOBERENA)

Proposatua: Aralar txirrindulari taldea

Merituak: Aralar eta Burunda txirrindulari talde sakandarrak Sakanan txirrindularitza zabaltzen eta sustatzen lan handia egiten dute. Aipatu bi taldeetan 100 neska-mutikoetatik gora daude Sakanan txirrindularitza trebatzen, kopuru paregabea Euskal Herri mailan eta estatu mailan ere.

Aurten eskoletako mailan bikain ibili dira eta zer esanik ez kadeteen eta jubenilen mailan, inguruko proba gehienetan podi-mera igo baitira Aralar eta Burunda taldekoak. Kadeteetan Igor Arrieta, Iker Mintegi, Aitor Alberdi, Hugo eta Unai Aznar eta jubeniletan Josu Etxeberria eta Ailetz Lasa aipatu daitezke. Bi talde hauetatik profesional handiak atera dira, Jose Luis Arrieta, Egoi Martinez, Gorka Verdugo, Pablo Urtasun, Jorge Azanza, Igor eta Iker Flores eta abar luze bat.

Irurtzun eta Etxarri Euskal Herriko Nazionalen

PILOTA Etxarrik aurre fasean ekingo dio txapelketari eta Irurtzunek final laurdenetan

Inoiz baino parte-hartze handiago izango da Euskal Herriko Kluben Arteko V. Txapelketa Nazionalen: 24 pilota klubek eman dute izena. Tartean daude Irurtzun eta Etxarri Aranatz klubak.

Iaz lortutako klasifikazioa kontuan hartuz, final laurdenetan ondoko klubak izango dira multzo-buru: Zazpi Iturri, Irurtzun, Buruzgain eta Hernani. Bestalde, final zortzirenetako II. Faseko multzo buruak Erreka, Zaramaga, Lemoa eta Tolosa izango dira. Eta gainontzeko klubek, Etxarri Aranatz tartean, aurre fasea edo kanporaketa bat jokatu beharko dute; aurre kanporaketa hori irabazten duten 8 klubak izango dira final zortzirenetako I. Fasera sartuko direnak. Etxarriekin batera Markina, Usansolo, Illunpe, Lea Ibarra, Eple, Tartaloetxe, Amurrio, Txukun Lakua, Adiskide, Gazteleku, Behar Zana, Bergara, Paz de Ziganda, Oberena eta Iurreta ariko dira aurre fasean.

Aurre faseko partidak zehazteko zozketa egitekoa zen atzo Billabonan. Kanporaketa hauek abenduaren 3a eta 9a artean jokatu dira. Final zortzirenetako I. Fasea Amezketako Larunaldi frontoian jokatu da, abenduaren 16an, 22an eta 29an eta ilbeltzaren 4an. Final zortzirenetako II. Fasea Idiazabalgo Igarondo pilotalekuan jokatu da ilbeltzaren 12an, 13an, 19an eta 20an, eta final laurdenak, final erdiak eta final handia Tolosako Beotibar pilotalekuak hartuko ditu.

Irurtzun finalista izan zen iaz, baina Amezketako Zazpi Iturriren kontrako finalean gipuzkoarrek gailendu ziren. Ongay, Olano Olazabal eta Bergera dira pilotariak. Etxarri Aranatzek, aldiz, aurten debutatuko du, Lazkoz, Otxoa, Petriati, Anso-tegi eta Azkune pilotariekin.



Aurreko urtean euriari eta hotzari egin behar izan zioten aurre korrikalariak.

Barricarte lasterketarako atzera-kontua, abian

ATLETISMOA Altsasuko Zubeztia elkarteak abenduaren 8an antolatutako lasterketak Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak saria erabakiko du. Izena ematea aurretik www.dantzalekusakana-com orrian egin daiteke, bestela, egunean bertan

Urtero moduan, Altsasuko Zubeztia elkarteak antolatutako 38. Oinezko lasterketa edo 35. Alberto Barricarte memoriala abenduaren 8an jokatu da, Ama Birjinaren egunean, hurrengo larunbatean.

Lasterketa Zubeztia elkarteak antolatzen du, Altsasuko Udaren laguntzarekin. Festa eguna denez, eta abendua, San Silvestreari begira puntuan jartzeko proba aproposa da Altsasukoa, oso proba herrikoia da. Aurreko urtean euria eta hotza, ez zen giro, baina hala ere, 156 korrikalari hartu zuten irteera eta Antonio Etxeberria (33:15) eta Veronica Dominguez (40:00) izan ziren irabazleak.

10,6 km Altsasuko herri gunean
Goizeko 11:30ean abiatuko da lasterketa, Zubeztia elkartearen albotik, eta hantxe bertan despedituko da, Zubeztia elkarteok herri gunean antolatutako zirkuituari lau itzuli eman eta gero. Guztira 10,6 km osatu beharko dira. Bukaeran, auzatea eta sari ematea izanen dira.

Izena ematea dohainik eta zabalik

Aurretik www.dantzalekusakana.com web gunean egin daiteke izena ematea. Bestela egunean bertan, lasterketa baino lehen, 10:00etatik 11:30era, Gure Etxean. 18 urtetik gorakoek eman dezakete izena.

Sakanako Kopako azken proba
Lasterketa honekin 2018ko Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sariari bukaera eman go zaio. Orain arte puntuatu duten lau lasterketak kontuan hartuta –Ziordia, Aitzkozar, Ergoienako Bira eta Sakanako Herri Lasterketa–, Sakanako Kopan emakumezkoetan Erkuden San Martin da lehena, Izaskun Beunzaren eta Maite Zabaltaren aurretik. Gizonezkoetan, aldiz, Juan Carlos Gomez dago lehen postuan, Ivan Gonzalezen eta Sergio Garcia de Eulateren aurretik. Barricarte lasterketa jokatu eta gero jakingo da zeintzuk diren aurtengo Sakanako Kopako irabazleak.

Korrikalari sakandarrak Eulaten, Hiru-Herrin eta Iruñean

ATLETISMOA Eulateko El Arriero krosean, Hiru-Herri krosean eta Emakumeen Lasterketan aritu ziren

Larunbatean Eulateko VII. El Arriero krosa jokatu zen, Urbasa paraje zoragarrietan barneratzen den 11 kilometroko krosa. 140 korrikalari hartu zuten irteera Amezkoarra mendiko klubak antolatutako lasterketan eta horietatik 133 klasifikatu ziren, Alvaro Ramos (43:48) eta Mari Cruz Aragon (53:21) buru zirela. Hainbat sakandar aritu ziren bertan eta azkarrenak Hiriberriko Imanol Erbiti, helmugan 11.a ((50:45) eta Erkuden San Martin, helmugan 72.a (1:01:22) izan ziren.

Bestalde, igandean 27. Hiru-Herri krosa jokatu zen Burlatako intxordian (4.036 m). 85 korrikalari sailkatu ziren eta Roberto Carlos Trejo Aleman mexikarra (12:49) eta Inma Sainz iruindarra (16:09) izan ziren txapeldunak. Imanol Irurtzun arakildarra 10.a sailkatu zen (13:29).

Emakumeen lasterketa

Igandean Emakumeen Lasterketa jokatu zen Iruñean, bi distantzian, 5 km eta 10 km. Guztira 400 emakume eta gizon lehiatu ziren. Sakandarrei dagokienez, 10 kilometroko emakumezkoen proban Olatz Monreal 25.a sailkatu zen (1:02:01) eta Mugika 26.a (1:02:01) eta 10 kilometroko gizonezkoen proban Luis Areta 13.a iritsi zen helmugara (46:13). Emakumezkoen 5 kilometroko proban Amaia Aristu bederatzigarrena sailkatu zen (27:05).

Sakandarrak asteburuko probatan

Asteburuan Eulateko VII. El Arriero krosean, Burlatako Hiru-Herri krosean, Iruñeko Emakumeen Lasterketan eta beste hainbat probatan aritu dira gure korrikalariak. Ondokoak, Eulateko eta Burlatako sakandarren emaitzak dira.

Eulateko VII. El Arriero krosa (11 km)

1. Alvaro Ramos	43:48
11. Imanol Erbiti	50:45
51. Santi Agirre	57:20
70. Aritz Pellejero	1:01:02
72. Erkuden S. Martin	1:01:22
76. Urko Rekalde	1:02:01
97. Fermin Zornoza	1:05:08
102. Juanxo Azurmendi	1:06:10
115. Eider Carrion	1:12:11

Hiru-Herri krosa (4,060 km)

1. Roberto Carlos Trejo	12:49
10. Imanol Irurtzun	13:29
20. Mikel Astiz	14:20
51. Isidro Asurabarrena	16:37

*Oharra: Proba hauetako sailkapenean ez zen korrikalarien bizitokien daturik jartzen. Beraz, gerta daiteke sakandarren bat ez agertzea

Txakurkrosa prestatzen

TXAKURKROSA Abenduaren 23an jokatu da Etxarri Aranazko II. Txakurkrosa, Euskanikross taldeak eta Xalok zentroak antolatuta, Etxarri Aranazko kanpinaren inguruetan. Igandean Euskanikross topaketa egin zuten bertan, 6,26 km-ko ibilbidea probatzeko. Etxarriko proban izena emateko www.sailkapenak.com web gunera jo behar da.



EUSKANIKROSS

Xakea Satrustegin

XAKEA Sakanako Mankomunitatetik adierazi digutenez, abenduaren 22an jokatu da Sakanako Xake Txapelketa, Satrustegin, goizeko 9:30etik aurrera.

Txapelketarako izena ematea egunean bertan egin beharko dute xakelariak, Satrustegiko elkartearen. Egun osoko txapelketa izango denez, bertan bazkalduko dute.





Anita Parker taldea diskoaren aurkezpenean. MAUKA

Anita Parker taldearen dantza egiteko deia disko berrian

Bigarren diskoa kaleratu du Anita Parker taldeak. Disko berria "elektronikoagoa" dela adierazi du taldeak

LAKUNTZA

Anita Parker !! diskoa aurkeztu du izen bereko taldeak. Lehengo diskoa homonimoa zen ere, baina bigarren hau ozen adierazi nahi izan dute: bi harridura ikur gehitu diote: *Anita Parker !!*. Diskoak taldearen elektroswing estiloa mantentzen du, baina "elektronikoagoa eta dantzagariagoa" dela esan zuten taldekideek Bilbon egindako aurkezpenean. Taldea Arrasaten sortua bada ere, Olatz Andueza lakuntzarra eta herri berean bizi den Jon Zubiaga Osoron dira taldeko kideetako bi.

Anita Parker taldearen estiloa bereizgarria da. "Musika elektroniko dantzagaria edo elektroswing" bezala definitzen dute. Hortaz, Swing-a dago oinarrian, baina atzoko eta egungo musika elektronikoarekin uztartzen dute. Bigarren diskoa "elektronikoagoa" da, elektro-swing guztiz

alde batera utzi gabe. Gainera, *Anita Parker !!* diskoan rap, bolero, sasi-tangoa eta beste estilo batzuetako ukituak entzun daitezke.

Azkarateko Katarain estudioetan grabatu dute diskoa Jonan Ordorikarekin. Javi Perez, Zigor DZ eta La Furiaren kolaborazioak izan dituzte. Taldekideak "pozik daude emaitzarekin". Lehengo diskoa Iñaki Bengoa taldekidearen zen Shot! estudioetan grabatu zuten, baina erre zen eta "ezer gabe" galdetu zirela adierazi zuten. Diskoaren azalak Andy Warholen arteari keinu egiten dio, eta lehenengoaren berdina da, baina kolore desberdinekin.

Sortu zenetik taldeak 60 kontzertu baino gehiago eman ditu. Japonian eta Korean egon ziren ere. Hurrengo kontzertua Durangoko azokan izango da, abenduaren 6an, ostegunean, 12:40ean.

Hesian taldearen hasiera berri batendako diskoa

Sakanan sortu zen taldea 2006. urtean. Dagoeneko hamabi urteko ibilbidea egin dute eta zortzi disko kaleratu dituzte. Azkenekoa, *Hasiera*. *Hasieran* taldeko musikari guztiak sakandarrak ziren, orain bi gelditzen dira, tartean, Fran Urias etxarriarra

E. Carreño / E. Ruiz ETXARRI ARANATZ *Hasiera* diskoa kaleratu berri du Hesian taldeak. Fran Urias taldeko kide etxarriarrak dio taldearen ziklo berri baten hasiera dela, hasiera berri bat. Izan ere, *Hasiera* diskoa egiteko inoiz baino gehiago inbertitu dute. "Leihoa etxetik bota dute", Uriasen hitzetan. Orain arte egin duten proiekturik handiena dela azaldu du.

"Bizitzan beti gaude zerbaiten bila, beti gaude zerbait topatu nahian. Askotan ez dakigu zehazki zeren bila gauden, baina horrela izaten da". Hesian taldea 2006. urtean jaio zen, Etxarri Aranazko elizaren azpiko lokalean. 12 urte hauetan gauzak asko aldatu direla aitortu du Fran Uriasek. Hamai-ka aldaketa jasan ditu taldeak, esaterako, sakandarrak ziren hasierako taldeko kide guztiak eta orain bi etxarriar daude. "Nik hemen jarraitzen dudana bitartean, etxarriar esentzia hori mantenduko da". Hesian, beraz, ez da berria, baina aurkeztu berri duten diskoa "hasiera bat da".

Daudenen eta pasa direnen artean Hesian taldearen familia 25 lagunek osatzen dute. Bizitzaren "aldaketa naturala" izan da, izan ere hogeitau urte pasatxo



Hesian taldearen irudia. BAGA BIGA

zituzten taldekideak hasi zirenean, eta gaur egun 30 urteak pasa dituzte jada. "Garapen bat izan da, naturaltasunaren horren emaitza bat". Hala ere, Uriasek aitortu duenez, batzuek musika "droga bat" da.

Hasiera diskoak Hesian esentzia mantentzen du baina rock-erako joera hartu du. Zuriñe Hidalgo taldeko abeslariak eta Fran Uriasek berak sortu dituzte letrak eta etxarriarrak onartzen duenez: "letrak oso ezberdinak dira baldin eta Zuriñek edo nik idatzi ditugun". Diskoak

alderdi "oso feminista eta oso borrokalaria" duela goraipatu du Uriasek. Hala ere, abesti intimoagoak daudela ere esan du musikariak. "Intimitate hori mantentzen dugu, azkeneko urteetan maitasuna izan da gure ildo". Dena dela, intimoa edo sentimenduei buruzko abesti batek ez du zertan maitasunari buruz hitz egin behar azaldu du Uriasek. "Intimitate maitasunarekin lotzeko joera dugu. Baina ez du zertan". Heldutasunak "beste perspektiba eta ikuspegi batzuk" eman die.

On Kixote eta R2D2 robotak elkarrekin antzezlan batean

George Lukas zinemagileak Star Wars sagako C3PO eta R2D2 pertsonaiak egiteko *On Kixote Mantxakoa* liburuan oinarritu omen zen. Dena delako, Kixote eta R2D2 lagunak diren antzezlan egiten dute gaur, Iortia kultur gunean, 12:00etan, DBH-ko ikasleen aurrean. Cervantesen lana barneratzeko modu bat dela diote egileek.



Kixote eta R2D2 antzezlanean. UTZITAKOA

Cruzadas antzezlan gogorraren emanaldia izanen da bihar

Tarima Beltza antzerki taldeak antolatu du Nueve Teatro konpainiaren emanaldia, bihar, 19:30ean, Iortian

ALTSASU

Te@treves antzerki zikloa sortu zuen Tarima Beltza antzerki taldea altsasuarrak 2011n. Sei edizioz antolatu zen antzerki zikloa. Iaz, aldiz, data arazoengatik ezin izan zuten zikloa egin,

baina Tarima Beltza taldeak antzerki amateurra zabaltzen jarraitu zuen: urtean zehar programatu zituzten emanaldiak. Aurten ere formatu hori erabili dute, eta elkar trukeari esker. Bihar, abenduaren leian, Cru-

zadas antzezlan izanen da Iortia kultur gunean, 19:00etan.

Garesko Txilindron antzerki taldearen *Los arboles mueren de pie* antzezlan programatuta zegoen biharko Iortia kultur gunean, baina "azken uneko arazo batengatik" *Cruzadas* izanen da azkenean antzeztuko duten lana. Nueve Teatro antzerki talde "berriak" eskainiko du antzezlan. Talde amateurra da, zuzendaria izan ezik; Alazne Etxeberria aktore profesionala.



Hasier Larretxea eta haren gurasoak ikuskizunaren une batean. UTZITAKOA

Altsasuko "aterpe naturalean", aizkolaritzaren poesia gaur

Hasier Larretxeak eta familiak 'Larremotzetik' ikuskizun poetikoa egingen dute gaur, lortian, 19:00etan

ALTSASU

2014an Hasier Larretxeak *Larremotzetik* liburu autobiografikoa argitaratu zuen. Larretxea Baztanen jaio zen eta haren patua aizkolarari izatea zela pentsatzen zuen. Baina ez zen aizkolaria ona izan. Homosexuala zela aitortu zuen, eta herri txiki batekoa izanik Madrilera joatea erabaki zuen. Inguruan bizi den jendearen bizimoduak kontatzen ditu liburu poetikoan, eta idatzitakoa emanaldi bihurtu zuen gurasoekin. *Larremotzetik* ikuskizun poetikoan Larretxearen poesiak aitaren

aizkorakadekin bat egiten dute, amaren "ezinbesteko" papera egiten duela. Gaur, 19:00etan, Iortia kultur gunean egonen dira *Sakanako liburutegiak, aterpe naturalak* kanpainari amaiera emateko. Emanaldia doan da.

Sakanako liburutegiak, aterpe naturalak Sakanako zazpi liburutegik azaroan zehar egindako kanpaina izan da. Hainbat ekimen eta tailer antolatu dituzte naturaren eta literaturaren inguruan. Lehenengo aldiz ibarreko liburutegiak bildu dira elkarrekin proiektu bat egiteko.

3.000 musikari ariko dira aldi berean Nafarroaren egunean

Nafarroa osoan 92 kontzertu egingen dira aldi berean, abenduaren 3an, 13:00etan. Etxarri Aranazko eta Erkudengo Ama Abesbatzak Sakanan arituko dira, Olaztin eta Lakuntzan, hurrenez hurren.

Nafarroako ereserkia abesten hasiko dituzte kontzertuak eta, ondoren, talde bakoitzak ohiko errepertorioa eskainiko du. Guztira 3.800 musikari arituko dira aldi berean.

Sakanan hiru aukera egonen dira: Etxarri Aranazko Abesbatza Olaztikoko kultur etxean, Agrupacion Coral Tafallesa Iortian eta Altsasuko Erkudengo Ama Abesbatza Lakuntzako kultur etxean.

Gazte-eko superheroiak aurkeztu dituzte

2019an Altsasun egingen den "kultura ekimen handiena" izanen dela diote Gazte-eko film laburren lehiaketa herrikoiako antolatzaileek. Ikus-entzunezkoak aurkezteko epea martxoaren 31n amaitzen da. 15 minutu baino gutxiagoko luzera izan behar dute, eta MP4 formatuan aurkeztu behar dira gaztetxean.

Zinemaren historian errepasoa egiten ari dira gaztetxeko kideak. Umpa lumpak izan ziren lehenengoak eta oraingoan Altsasuko justizia liga aurkeztu dute. Adierazi dutenez, gaizkile talde batek Gazte-eko ez ospatzea nahi du, hortaz, laguntza behar dute film laburren jaialdia aurkera emateko.

Mundua mugitzen duten euskal pailazoaren musuak

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak abenduaren 3an Irurtzungo kiroldegian egonen dira, 17:00etan

IRURTZUN

Pirritx, Porrotx eta Marimotos Irurtzunera itzuliko dira, urtero bezala, Euskararen egunean. Abenduaren 3an *Musua* ikuskizuna aurkeztuko dute Sakanako herrian. 17:00etan izanen

da emanaldia, kiroldegian. Ohiturari jarraiki etorriko dira euskal pailazoak Irurtzunera. Izan ere, Aizpea euskaltzaleen topaguneak urteetan sustatu du herriaren eta pailazoaren arteko lotura. Naturaren eta kul-

turaren inguruko ikuskizuna da *Musua*, Katxioporreta konpainiaren lan berria.

Euskararen egunean, abenduaren 3an, antolatutako pailazoaren emanaldiarekin, Aizpea euskaltzaleen topaguneak euskal ekitaldiak programari hasiera ematen dio. Abenduko festa egunak aprobetxatuz, euskara bultzatzeko eta ikus-tarazteko helburua duten jarduerak antolatzen ditu euskal elkarteak. Adin guztietarako irurtzundarrei zuzenduta dago.

Argazki sorta onena saritua

Altsasuko Mendigoizaleak-ek antolatutako 33. Argazki Rallyaren sariak banatu zituzten larunbatean. Asier Imaz legazpiarrek irabazi zuen argazki sorta hoberenaren saria. Jon Esnaola bigarren sailkatu zen eta hirugarrena Gorka Gomez. Haurren mailan Nagore Imazek irabazi zuen eta argazki hobereana Elena Guzmanena izan zen. ADEren saria Idoia Hualderendako izan zen.



UTZITAKOA

BAZTERRETIK

URDIAINGO LIBURUTEGIA

Urdiaindik hiru liburu proposamen

"Amek ez dute" (Katixa Agirre. 2016 Zubikarai saria). Bi emakume, bi ama gazte: batek bere ume bikiak hil ditu, bere eskuz baineran itota. Bestea, nobelaren narratzailea, bere buruaz erditzerakoan, bat-batean oharitu da ezagutzen duela ama hiltzaile hori, aspaldi bere berri izan ez badu ere; Jade/Alicerekin eta haren ekintzarekin obsesionatuta, gehiago jakitea erabakiko du, hartaz ikertzea eta horri guztiari buruzko eleberri bat idaztea.

Katixa Agirrek, gogoz irakurtzen den fikziozko nobela honetan, historian zehar infantizidioa zein egoera eta baldintzetan gertatu den kontatzen digu, besteak beste, amatasunaren inguruko hausnarketa, sentimendu, emozioak modu

gordinean plazaratuz. Idazkera dinamikoa eta arina.

"Vastas emociones y pensamientos imperfectos" (Rubem Fonseca). Eleberri honetan protagonista etxetik aldatzen ari da inauterietako dantzari baten bisita jasotzen duenean. Honek kutxa bat utziko dio. Dantzaria hil egiten dute, kutzak harri bitxiak dauzka barruan eta gaizkile banda bat dauka atzetik. Bien bitartean espero ez duen gonbidapen bat jasotzen du, Alemanian "Caballería roja", Isaac Babel, errusiar idazleak idatzitako ipuin sorta zoragarriaren filma grabatzeko. Honenganako pasioak Brasildik Alemaniara eramango gaitu eta politikari, literaturari eta arteari buruz hausnarketa egiteko beta

emango dio idazle brasildarrari. Agertzen zaizkigun pertsonaien nahiak eta ametsak gorpuztuko dute eleberri entretenigarri hau.

"Escape book, La puerta de Lia" (Ivan Tapia. 12 - 18 urte). Liak ateak irekitzen ditu, buruko ateak, non gure sekretu eta oroitzapenak gordetzen ditugun. Giltzaren hermandadekoek beraiekin elkartzeko aukera eman diote, baina lehenik bere gaitasunak ziurtatu behar ditu eta horretarako proba mordo bat prestatu dizkiote, berak gaizkile ditzan eta horrela bere dohainez ikasteko aukera izateko. Hemen sartzen zara zu, irakurle, Liak azalduko zaizkion erronkei aurre egiteko laguntza behar duelako. Horretarako azkarra izan behar duzu eta logikaz eta sormenez baliatu behar duzu. Ausartuko al zara? Escape room fenomenoak inspiratu du Ivan Tapia irakurlea inplikatzeko duen genero berri hau sortzen. Pista asko dago eta amaiera da interesgarria.



Ciento volando taldea. UTZITAKOA

Taldearen "arima" jasotzen duen diskoaren grabaketa

Kontzertu berezia egingen du Joseba Santesteban lakuntzarraren Ciento volando taldeak, Burlatan

LAKUNTZA

4nek taldean egon ondoren, Joseba Santesteban hiru lagunekin elkartu zen Ciento volando taldea sortzeko. Pop-rock egiten dute, baina country estiloa nabarmena dela dio Joseba Santestebanek, taldeko baxu-jotzaileak. Bihar, abenduaren 1ean, kontzertu "berezia" egingen dute Burlatako kultur etxean: zuzenekoan diskoa grabatuko dute. 22:30etik aurrera izanen da emanaldia. Gainera, abestiak jotzen dituzten bitartean irudien proiektzioak egingen dituzte, eta aktore batek hainbat elkarriketa egingen ditu.

Euskal Herriko taldeen artean country-a ez da oso ohikoa. Eta horregatik da Ciento volando taldearen bereizgarrietako bat: "Carlosi, abestiak egiten dituen taldekideari, Nashville inguruko musika hori gustatzen zaio, eta gure abestiek country ukitu hori badute". Taldearen letrak

ere bereziak direla dio Santestebanek: "mezua duten letra kdira, gizarte gaiak jorratzen ditugu".

Berezia izanen da ere diskoa grabatzeko modua. Estudio batean sartu beharrean, Burlatako kultur etxean egingen duten kontzertua izanen da diskoaren grabaketa. "Uste dugu horrela taldearen arima, gure musikaren arima, geldituko dela diskoan". Zuzenekoetan sortzen den giro berezia jaso nahi du Ciento volando taldeak bere lehenengo diskoan. "Okertzen bagara ere, hori diskoan gelditzea berezia da".

Diskoa grabatzea ez ezik, bideoan ere grabatuko dute "gaur egun garrantzia handia hartu dutelako ikus-entzunezkoek". Izan ere, musika entzun ez ezik ikuskizun "berezia" eskainiko du taldeak. Besteak beste, proiektzioak eta aktore bat egonen dira.

'Sorkuntza euskarari' tailerrak Eguberrietan

Iortian egingen diren lantegietan izena emateko epea abenduaren 14an amaitzen da

ALTSASU

Sorkuntza euskarari, euskara sorkuntzari tailer sorta antolatu du Sakanako Mank-ek. Booktubeak, komikiak eta album ilustratuak euskaraz egiten ikasteko lantegiak dira. Eguberrietako oporretan izanen dira, abenduaren 26an, 27an eta 28an, hurrenez hurren. Hiru tailerrak 10:00etan izanen dira Altsasuko Iortia kultur gunean. Izena ematea abenduaren 14a baino lehen egin behar da, Iortia kultur gunean, 948564272 telefono zenbakian edo iortia@altsasu.net e-postaren bidez.

Eguberrietako egunetan antolatutako lantegiek haurren eta gazteen euskarazko sorkuntza bultzatzea dute helburu. Abenduaren 26an booktubeak egiteko lantegia izanen da. 12 urtetik aurrerakoendako tailerra da. Youtube bideoak ikusteko plataformak hartu duen indarra ikusita, booktubeak irakurritako liburuaren kritika edo aipamena egiteko bideoak dira.

Abenduaren 27an 8 urtetik aurrerako haurrendako komikiak egiteko tailerra izanen da, eta abenduaren 28an album ilustratuak izanen da gaia. 10 urtetik gorakoendako tailerra izanen da azken hau.



Saats Karasatorre Elizondon. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

"Saioak barrutik nahiko ezberdin bizitzen dira"

SAATS KARASATORRE BERTSOLARIA

VIII. Izeta Sariketaren txapela irabazi du etxarriarrak

E. Carreño / E. Ruiz ETXARRI ARANATZ Irurtzango kanporaketa "nahiko justu" pasa zuen, eta ez zuen espero finalera pasatzea. Hala ere, Nafarroako Bertsozale elkarteak eta Baztango udalak antolatzen duten Izeta Sariketaren finalean egon zen, Elizondon. Egon eta irabazi. 246 puntu bildu zituen etxarriarrak, txapela janzteko aukera eman ziotenak.

Nola jasotzen da horrelako txapela bat? Espero zenuen?

Momentuan, ez. Egia esan Irurtzango kanporaketan nahiko justu pasa nintzen eta ez nuen finalera pasatzea espero. Saioak barrutik nahiko ezberdin bizitzen dira. Epailerekin hitz egiten beste ikuspuntu bat ematen diozu, baina momentuko sentsazioa nahiko arraroa egiten da. Finalean pozik, baina barrutik oso ezberdin ikusten da. Gauza bat da nola sentitzen zaren eta beste bat epailerekin zer jasotzen duten. Bertso batean nahiko ongi egin nuen, baina ez nekien non nongoen, eta sorpresa etorri zen. **Zergatik da garrantzitsua horrelako sari bat irabaztea?**

Nafarroa mailan gazte sariketen artean izen handiko bat da urte askotan egin delako. Erakusleihen moduko bat dira horrelako sariketak. Aurrera egiten duenak edo ongi ikusten zaionari ongi. Egun bat da, egun bakarra, egun horretan jendaurrean aritzen ikusten zaizu.

Egun bat da, baina egun horren atzean prestaketa egun gehiago daude, ez?

Bai. Bertso eskolak daude eta gero etxean, egia esan, nik ez dut asko egiten, baina agian egin beharko nuke. Baina, bai, badu lana. Bertsolariak, askok, lan asko egiten dute bertso eskoletan, etxean, koadernoarekin...

Nafarroako Bertsolari Txapelketarako entrenamendua izan daiteke Izeta Sariketa?

Aitzakia polita da bertsoan hasteko. Udan ez gara asko elkartzen, normalean ez gara elkartzen. Eta kasualitatez Bolik beste sariketa bat zeukan, txapela lortu zuela ere, eta aitzakia horrekin astero behintzat elkartu gara. Hori mantentzen bada Txapelketan ez gara ezer egin gabe iritsiko.

Datorren urterako zer helburu dituzu?

Ez daukat horrela esanda helbururik. Saiatu behar naiz bertso gehiago sortzen eta nik uste lortzen ari naizela. Ostiraleko saioa ez nuen gehiegi gozatu, baina egia esan beste saio batzuetan bai disfrutatu dudala. Irurtzunen, adibidez, nahiz eta txapelketa izan eta puntuazioa dagoenean beti ezberdina den, gozatu nuen. Puntuatzen egon arren gozatzea lortu dut.

Ez gozatzeaz ari zarenean, zer da ez gozatzea?

Burua beste gauza batzuetan neukan. Aste arraroa izan zen eta bertso saioa amaitzeko gogo gehiago neukan beste edozer baino. Suertatu zen horrek mesede eta dena egin zidala. Batzuetan presioa daukazunean apaltzen zara.

Eskola jazarpenaren kontrako antzerkia, Etxarri Aranatz

Mikel Gurraeren lehenengo antzezlanak, 'Soka', izanen da gaur, azaroaren 30ean, Etxarri Aranatz 22:00etan

ETXARRI ARANATZ

Irudi ilunak, beldurgarriak, akerrak eta ikusezinak emanen dio hasiera *Soka* antzezlanari, Mikel Gurraera antzezlanaren egilearen esanetan. Irudi honekin haurtzaroen pilatutako bel-

dur guztiak islatu nahi ditu. Izan ere, *Soka* antzezlanaren oinarrian "eskolan jazarpena sufritu eta jasaten dutenak, haien senideak eta horri aurre egiteko lanean diharduten guztiak" daude. Bullying-aren inguruko kon-

taketa bat da: "errua eta erantzukizunaren arteko muga horretan kokatu dut istorioa". Gaur, azaroaren 30ean, izanen da antzezlanaren emanaldia, 22:00etan. Sarrerek 6 euroko prezioa dute eta *etxarriaranatz.eus* edo leihatilan eros daitezke.

Eskolan jazarpenari buruz gogoeta egitea da egilearen helburua. Gainera, ikus-entzuleak ohartarazten ditu: "ondorio edo erantzun zehatzik gabeko gogoeta izanen da". Iñaki Rikarte da aktorea.



Santi Goikoetxea, ezkerrean, makillatze lanetan. UTZITAKOIA

"Makillaje berezia egitea hilabeteko lana da"

Santi Goikoetxea ile-apaintzailea eta makillatzailea da. Estilista, azken finean. Modaren munduan lan egin ondoren, ile-apaintzaile motz gelditzen zitzaiola pentsatu eta Madrilgo goi mailako eskola batean zinemarako makillajea ikastea erabaki zuen

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Zergatik ile-apaintzaile izan?

Betidanik gustatu zait irudien mundua. Panpinak apaintzen nituen eta ile-apaintzeko lehenengo burua 11 urterekin opartu zidaten. Orduan hasi nintzen orrazketak egiten esperimentatzen. Zaletasun bat da. Noski, lan bat da, baina asko gustatzen zait.

2 Ile-apaindegietan lan egin duzu. Zer nolako esperientzia izan da?

Oso ona. Hiru ile-apaindegietan lan egin dut, haien artean desberdinak, eta bakoitzetik zerbait ikasi dut. Gustatzen zait, baina lana beti antzekoa egiten da. Horietako bat edertasun marka ezagun bateko talde sortzailean dago eta modaren munduan hainbat lan egiteko aukera eman dit.

3 Beraz, ekitaldi berezietan lan egin duzu.

Besteak beste, Zinemaldian egon nintzen *Marrowbone* filmaren taldea apaintzen. Nahi gabe izan da. Ezer bilatu gabe nire lana egin dut, hau da, ez naiz joan jendearengana egiten dudana erakustera. Baina egiten dudana ikusi dutenean gustatu zaie.

4 Zer egitea gustatzen zaizu gehien?

Ezin dut aukeratu. Dena gustatzen zait. Gainera, eskuordetzea kostatzen zait; nik dena egin nahi dut. Itxura aldaketa handiak egitea gustatzen zait.

5 HRP make up artist eskolan makillaje berezia ikasten ari zara. Zein da eskola hori?

Makillajearen munduan izen handiko eskola bat da. Irakasleek zinemaren munduan esperientzia handia dute eta sariak jaso dituzte ere. Gainera, modaren eta zinemaren munduan oso garrantzitsuak diren behin behineko irakasleak ere ekartzen dituzte. Ikasketak nahiko orokorrak dira. Gehien bat zinemaren eta efektu berezien makillajea deitzen dena lantzen dugu, baina moda editorialak ere lantzen ditugu.

6 Zergatik erabaki zenuen ikasketak hauek egitea?

Ile-apaintzaile motz gelditzen zitzaidan. Zerbait gehiago behar nuen. Modaren eta zinemaren munduak asko gustatzen zaizkit. Modaren munduan lan egiteko aukera izan nuen eta zinemaren munduan dena gustatzen zait. Beraz, eskola honek bi gauzak eskaintzen zizkidanez probatzea erabaki nuen.

7 Goi mailako eskola bat da. Zaila izan zen sartzea?

Espezializazio eskola bat da eta sartzeko nahiko maila altua izan behar duzu. Azterketa bat egin behar genuen, baina azterketa hori egiteko gure *book* profesionala erakutsi behar genuen, hau da, makillatzaile bezala zure lerro estetikoak aurkeztu behar

zenuen. Lerro estetikoak makillatzaile pertsonalitatea da, makillatzaile bezala ezberdintzen zaituena.

8 Nolako esperientzia izaten ari da?

Oso aberasgarria. Eta oso gogorra, egia esan. Asko exijitzen dute. Lan bikainak eskatzen dituzte, eta ikasleen artean lehiakortasun handia dago. Eskolatik kanpo praktikak egiteko aukera izan dugu. Aurreko astean eskolakideak eta biok Anastasia musikaleko ileordeak prestatu ditugu eta Madrilgo Gabonetako argien piztean ere aktoreek emanaldi bat egin zuten eta guk makillatu eta orraztu genituen.

9 Zenbat denbora behar da zinemako berezi bat egiteko?

10 ordu inguru. *Errementari* filmaren deabrua egiteko 8 eta 10 ordu inguru behar dituzte hiru pertsonako talde batek. Aurretik protesiak egiten dituzte. Hilabetetako lana da.

10 Etorkezunean, zer?

Trebatzen jarraitu nahi dut. Eskola oso berezia da eta lan mundura zuzenean atera naiteke, baina gustatuko litzaidake makillatzaile gehiagorekin ikasten jarraitzea. Kontakatuak oso garrantzitsuak dira, eta lortzeko modurik onena ikastaroak dira.

11 Nola ikusten dituzu gaur eguneko efektu bereziak?

Arazoa orain digitalizazioa da. Hala ere, oraindik efektu erreal asko lantzen da. Estatuan sektoreko hoberenariakoak daude. Guillermo del Toro zinemagileak, Espainiako makillatzaile taldeak nahi ditu haren filmak egiteko.

Bazkide sarituak

Abenduko sariak

- Jose Enrique Zubiria Gala (Urdiain)
- M^a Elena Lizarraga Lazkoz (Etxarri A.)
- Iñigo Landa Otaegi (Altsasu)
- Amaia Amilibia Salgado (Altsasu)

1. SARIA:
EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN









